



ARGIA

GERRAREN MEHATXUA

Zertarako behar du etsai bat Europak?



#2.913 | 2025 / 04 / 13 | 4 €

26-33. orrialdeak



**Sarkozy eta Le Pen,
justiziaren aurrean**

12 | USTELKERIA



**"Erramoldeak ere hor
ziren beti, marikoia goiti
eta marikoia beheiti"**

16 | HASIER LARRETXEA




**Pilotarien
esparatrapuak
paper bihurtuta**

38 | BIRZIKLAPENA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #306
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



INDARKERIA MATXISTA

ZER ATERA DUGU AZKEN URTEETAKO BORROKATIK?

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 21 | BALEREN BAKAIKOA
- 22 | NORA SALBOTX
- 23 | HIRUKI LARROXA
- 23 | LEIRE NARBAIZA
- 24 | ENEKO GORRI

Finkoak

- 40 | GORPUTZ HOTSAK
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU


 IRUDI MUNTAIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


LUCA CHIANDONI

34 | **FRIULI HERRIKO EKINTZAILE KULTURALARI ELKARRIZKETA**

Carlu Pup friulieraz mintzo da. Cira Crespok egin dion elkarrizketan azaldu ditu bere herriaren historia eta kokapena, baita berak etxean ezagutu duen hizkuntz bizipena ere. Hizkuntza gutxituek Europan bizi duten egoerari ere egin diote errepasoa.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Sarkozy eta le Pen eskandalizatuta, zuzenbide estatuak hitz egin duelako

Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | HASIER LARRETxea

“Beharrik ttiki-ttikitatik garbi jakin nuela zer nahi nuen, zerk erakartzen ninduen”

Miel A. Elustondo

26 | NAZIOARTEA | UKRAINAKO GERRA BUKATZEAR

“Europarrok, gerrarako prest!”

Xabier Letona

38 | INGURUMENA | BIRZIKLAPENA

Pilotako esparatrapu hondakinetatik papera

Garazi Zabaleta

48 | KULTURA | GEROTIK GERORA

Eugene Pottier, “Kanta iraultzaileak”

Paul Beitia

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Unai Lomana, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Lander Gonzalez, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**


Aldizkari honek ekoedizioaren baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202500007


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen sareko kide gara.



Bikote perfektua

Egungo Venezia 118 uhartez osaturiko artxipelago baten gainean eraikita dago. Uharte horiek 455 zubik elkar lotzen dituzte. Lurra baino lokatza du oinarri hiriak. Inguruetako milioika zuhaitz mozteari ekin zioten IX. mendetik aurrera, piloteak eraiki eta hiria zimendatzeko. Urteak pasa dira, eta kapitalismo modernoak sistema horri bi mehatxu ekarri dizkio: klima-aldaketa eta turismo masiboa. Poloak urteak munduko kostaldeko hiri guztiak mehatxatzeaz gain, turismoa hiriko ohea suntsitzen laguntzen ari da. Milioika turistak jotzen

du hirira denok milaka aldiz ikusitako *selfieak* errepikatzen. Kaleak kanalak dira, eta denetariko txalupek (gondola turistikoak, Poliziarrenak, txalupa pribatuak, banaketarakoak...) urteak daramatzate aurrera eta atzera. Eta azken hamarkadetan gurutzatzaileak ere bai. Hiritik metro gutxira igarotzen direnak, itsas ohandea irauliz eta hiriko zimenduen zati den buztinezko zoru biguna aztoratuz. Hainbesteraingo, ezen distantzia jakin batera hurbiltzea debekatu dieten. Hainbat adituk dio azken 30 urteotan 13 zentimetro urperatu dela Venezia.

📷 Basoberritze Eguna Veneziako iparraldeko aintzira batean. 16.000 zuhaitz landatzen ari dira, ekosistema padura gazietatik babesteko.

SIMONE PADOVANI/GETTY IMAGES

 **AXIER LOPEZ**





GEDAR

Ertzaintzak Etxarri II gaztetxea hustu du

UNAI LOMANA URIBEZUBIA

Errekalden, Bilboko Kukutza III gaztetxea zegoen auzoan, proiektu urbanistikoko berri bat egitea aurreikusen da. Amenabar enpresa eraikitzaileak eta Bilboko Udalak onartutako proiektuaren ondorioz, Etxarri II gaztetxearen hustuketa agindu zuten apirilaren 4rako. Hori salatzeke, gaztetxeako asanbladako hainbat kidek Bilboko osoko bilkura eten zuten, eta elkertasunean 55 kolektibotik gora batu zaizkie.

Hustuketa ostiralerako iragarria bazegoen ere, Ertzaintzak ostegun arratsaldean abiatu zuen operazioa. Gaztetxea defendatzen zegoen gazte taldea 10:00ak aldera kanporatu zuten eta barruan egondako kideak identifikatu zituzten. Elkertasunean manifestazioa egin zuten eta gaztetxera hurbiltzean oldartu zen Ertzaintza. Ondoren barrikadak altxatu zituzten manifestariak.

“AURREZ AURRE EGIN ZIDAN TIRO”

Ertzaintzaren jaurtigai baten ondorioz, barrabila galdu du Iker izeneko 33 urteko bizilagunak. *El Correo*n adierazi du Ertzaintzaren oldarraldietako batean jaurtigai baten talka jaso zuela: "Bizilagun gehiagoren ondoan nengoan, besteak beste, adineko pertsonen ondoan, babes-seinale gisa, modu baketsuan eta

istiluetan parte hartu gabe, ertzain batek zuzenean apuntatu ninduenen". "Berriaz" egin zuela dio Ikerrek: "Niri aurrez aurre begira zegoela egin zidan tiro, 30 metro baino gutxiagora, txarrera eta arrautzetara apuntatzen, baina ez dakit nor den, ezinezkoa izango da jakitea", deitoratu du. Jaurtigaiaren talka jaso zuen momentua ere kontatu du: "Beluniko erori nintzen lurrera eta pixka bat ibili ahal izan nuen bertatik urruntzeko, ezer ez egiteagatik ere atxilotuko nindutela beldurrez".

“Barrabil bat kendu didate. Bestea salbatzea espero dut”

Larrialdietara heldu eta lau ordutara egin zioten ebakuntza: "Barrabil bat kendu didate. Bestea salbatzea espero dut", aitortu du etsipenez. Ospitaletik irteten uzten diotenean, Ertzaintzan salaketa jarriko duela jakinarazi du, eta seguru agertu da: "Ez dakit zer egin behar dudan, baina komisariara joango naiz". Hala ere, itxaropenik gabe zera salatu du: "Okerrena da ez duela ezertarako balioko, agentea salatu behar delako eta haien artean ezkutatu delako". ●

Kutsadura maila arriskutsuak Zubieta inguruan

XABIER LETONA BITERI

Europan kutsadura maila aztertzen aritzen den Toxicowatch erakundeak egindako ikerketaren emaitzak dira. Zubietako erraustegia martxan jarri aurretik egin zituzten lehen azterketak, eta ondoren 2024ra arteko laginak aztertu dituzte. Iazko laginen emaitzak dira honakoak.

Erraustegiak dauden Europako beste leku batzuk ere aztertu dituzte, hala nola Parisen eta Harlingen-en (Herbehereak), eta antzeko emaitzak izan dituzte, kutsadura maila handiak. Azterketa egiteko erabili dituzte aire librean aritzen diren oiloen arrautzak, goroldioa, lurra, erreka- eta ura eta Usurbilgo etxe bateko ur edangarria.

Toxicowatch-eko kideak bost urtez aritu dira laginak hartzen, eta ikusi dute 2019tik dioxina maila asko handitu dela horietan, baita metal astunetan, PFASetan –degradatzen ez diren produktuak– eta beste gai oso kutsagarri batzuetan ere. Zubietako erraustegitik bost kilometroko erradio bateko zazpi tokitan jaso zituzten arrautzak, eta Zubietatik 3.500 metrora dagoen Hernaniko arrautzetan ikusi dute Europan azken hamahiru urteetan egin dituzten behaketetan inoiz jasotako dioxina kutsadura mailarik handiena.

Erraustegia 2020an martxan jarri zenetik kutsadurak gora egin du osagai guztietan. Oraingoan, Zubietan bertan PFAS produktu toxikoak topatu dira miatutako oilo arrautza guztietan, eta Hernanikoetan eta Andoaingoetan Europan Batasunak baimendutako kopuru guztiak gainditzen dituzte.

2019an erraustegia ez zen lanean ari oraindik eta ez zen dioxinarik aurkitu jasotako goroldio eta pinu orratz-hostoetan, baina ondorengo urteetan jasotako laginetan dioxinen maila 300 aldiz handiagoa izan zen. Urteekin kutsadura kopuru horiek jaitsi dira, baina hala ere, goroldioetako dioxinak eta furanoak 2019an baino 30 aldiz handiagoak dira.

Metal astunen kutsaduraren goranzko joera ikusi da, halaber, ura, lurra, goroldioa eta sedimentuetan. ●

MELOI SALTZAILEA

Antifa



JUNE FERNANDEZ

kaslez lepo zegoen Leioako Hezkuntza Fakultatea pasa den asteazkenean, Samantha Hudson zetorrelako. 1999an jaiotako Mallorcako artista, abeslari eta *influencer* transgeneroa da. Kantatzen Duen Herria topaketetako izarrak ilara amaigabea zuen *selfie* eta autografoak emateko, eta areto nagusiko aforoa gainditu zuen bere solasaldiak.

Zirrara handiz hartu nuen haren solaskide izateko proposamena, *celebrity* bat ezagutzeko kuriositateagatik, baina, batez ere, *Bimboficadas* podcastean entzuten dudalako bere diskurtso transfeminista eta antifaxista, abestien letretan ere agerikoa dena. Esaterako, *Por España*-n "marikoi judutar-masoi, emagaldtu, sorgin budu" gisa aurkezten du bere burua eta Paco *kaudillo*arekin fantasia sadomasokistak irudikatzen ditu ironia lotsabako osoz.

16 urterekin ospetsu egin zen, arte eszenikoe-tako Batxillergoko ikaslea zelarik. Bideoklip bat filmatu behar zuen ikus-entzuketako ikasgairako, eta abesti sakrilego ikoniko bat sortu zuen (*Soy maricón / pero también soy cristiano / Ellos no me aceptan porque follo por el año*). 'Bikain' jarri zion irakasleak, baina bestelako erreakzioa izan zuen Erljiokoak. Gotzainarengana jo zuen eta Abogados Cristianos gisako erakunde kontserbadoreek nerabearen kontrako izugarritzko kanpaina abiatu zuten. Traumatikoa izan bazen ere, orduan jaio zen Samantha Hudson pop-izarra.

Galdera mordoa egin zioten ikasleek solasaldian: bere pertsonaiari buruz, bisexualitateari buruz, gizon aliatuen paperari buruz... Batek galdetu zion zer bide hartu behar duen gazteriak gizartea eraldatzen jarraitzeko, kontuan hartuta langile mugimendua zein mugimendu feminista klasikoak krisian daudela. "Premiazkoa dugu antolatzea. Etxebizitza eskubidearen aldeko manifara joan zaitezte. Sindikatu zaitezte", erantzun zuen Samanthak.


Villano Antillanorekin abestia estreinatu zuen biharamunean Hudsonen. Puerto Ricoko raplari transgeneroak *Bimboficadas*-en azaldu zuen emakume transen mamua astintzea dela Trump administrazioaren agenda faxistaren funtsezko estrategia.

Kuir mugimendua neoliberal dela uste dute askok. Kontrakoa deritzot nik: XXI. mendeko antifaxismoa ez du Marteens eta bomberdun gizon batek gorpuzten, ipurmasailak begi-bistan uzten dituen minigona eta azazkal postizoak daramatzen pertsona trans ez binario politizatu batek baizik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Arberoa ikastolaren suteak elkartasuna piztu du Ibaran

MARA ALTUNA DIAZ

Nafarroa Behereako Arberoa ikastola erre zen pasa den urrian. Administrazioetik laguntzarik jaso ez duten arren, herritarrek berehala erantzun dute. Joan den astean, elkartasuna eta berotasuna jaso dute Gipuzkoako Ibaran. Elkartasunak eraikitako sarea da gakoa.

"Ikastolak su hartu zuen, gauez. Arbel digitalak eragin omen zuen, ez dakigu ziur". Arberoa ikastolaz ari da Extefana Ohienart. 57 ikasle ditu Donamartiri herriko ikastola bakarrak, Arberoa eskualdean. "Ikastola egoera horretan ikusteak bihotza urratu zigen, baina berehala hasi ginen lanean. Ez geneukan beste aukerarik. Gauza batzuk gurasoen etxeetan gorde genituen, baina beste asko bota egin ziren; liburu batzuk baino ez ziren salbatu".

Ezbeharrak gertatu eta egun gutxira, ikasle, irakasle eta gurasoak elkarrekin hasi ziren lanean, ikastola berreraikitze-ko asmotan. "Osorik bota eta berreraiki behar dugu haur hezkuntzako eraikina, gure bulegoekin batera. Espazioa berrantolatu behar izan dugu eskolak ematen jarraitu ahal izateko. Kantina zena, esaterako, ikasgela dugu egun".

Arberoak ezohiko lan jardunari eusten dio, irakasle guztiak maila guztietatik pasatzen direlarik. Ikastolako txikienak 2 urte baino ez ditu, eta 11 zaharrenak. Frantziako Gobernuak ezikusia egin dio Arberoako egoerari. Seaskaren eta komunitatearen babesa baino ez dute izan baxenabartarrek aurrera ateratzeko. "Aritz elkartek eta hainbat ikastolek lagundu digute".

Joan den astean, hain zuzen, Ibarako plazatik irten zen Elkartasun Kilometroa, urtero lez. Uzturpe ikastolako irakasle Nerea Ramosen hitzetan, "ikasleek hainbat buelta ematen dizkiote ibilbide zehatz bati eta familiek diru ekarpenak egiten dituzte. Laguntza ekonomikoa eskaintzea baino, elkartasunaren garrantziak jabetu araztea dugu helburu nagusi. Gure ikasleek munduko haurren eskubideak aztertzen aritu dira". ●

ANALISIA



Nerabeak eta *incel* kultura

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Nerabe(mutil)ez ematen duen irudi gatazkatsu monokromatikotik harago, abiapuntu duen muturreko egoeratik harago (mutil batek neska bat hil du), hari-mutur interesgarriak planteatzen ditu *Adolescence* modako telesailak, kultura misoginoak gazteak nola harrapatzen dituen ulertzeko bidean.

Nola iritsi da Jamie, familia arrunt bateko 13 urteko semea, bere ikaskidea hiltzera? Arrazoiak ulertzeko peskizan, bereziki gurasoak, hezitzaileak eta oro har helduak interpelatzen gaitu telesailak, hainbat galdera begien aurrean jarrita. Zergatik tematu da Jamieren aita, semeak futbola eta boxeoak egin dezan, nahiz eta umeak beste zaletasun batzuk eduki? Zein punturaino gara gurasoak gure seme-alaben erreferente eta zenbateraino hartzen dituzte bestelako erreferente (toxiko) batzuk? Erreferente eta bidelagun izateko teoria jakin badakigulako, hitz egin eta hitz egin, entzun eta ondoan gauzkala adierazi, edozertarako gugana jotzeko konfiantza izan dezan saiatu, baina praktikan zenbat solastatzen gara etxean? Zenbat gai ezikusi ditugu edo bilakatu ditugu tabu (kontziente edo inkontzienteki) etxean? Eta eskolan?

Erreferenteez ari garelarik, jakitun al gara Interneten eta sare sozialetan zer kontsumitzen duten gure seme-alabek? Emakumeenganako (edota pentsamendu feministarekiko) gorrotoa eta misoginia sustatzen duten Interneteko foro, komunitate eta influencerren eraginaz kontziente al gara? Izan ere, pelikulan agertzen diren kontzeptu ugari (manosfera delakoa, *incel* kultura, pilula gorria...), mutilen artean gero eta hedatuagoak, ez al zaizkigu helduoi eskapatzen? Ohartzen al gara, ahuldade, segurtasun falta eta frustrazio sentimenduen aurrean, azpikultura horrek guztiak boteretsu bilakatzen dituen diskurtsoa oparitzen diela mutil nerabe batzuei? Nola kudeatu nerabeek mugak gainditzeko duten grina eta taldearen (parte izateko) presioa?

Indarkeriaz, harremanez, sexualitateaz... jaso ditzaketen irudi distortsionatuen aurrean, nahikoa heziketa sexu-afektibo-emozionala jasotzen al dute haur eta nerabeek (hain etapa konplexuan gainera)? Heziketa horrek elkarren arteko errespetuan, aniztasunean eta empatian jartzen al du indarra, harreman osasuntsuak erakutsi eta sustatzeko? Ba al dakigu gure seme-alaben koadrilak zein kode, harreman eta dinamika darabiltzan? Jarrera toxikoak ikusiz gero, esku hartzen al dugu, ikasgela, pasillo eta patioan, adibidez?

Tira, pazientziak armaturik "etxeko lanak" eginda ere, guraso eta hezitzaileak ez gara denaren arduradun, ez gara denaren errudun, seme-alabek ez dituzte beti gure lezio(moral, etiko)ak jarraituko (are gutxiago nerabezaroan!), gainera pertsona kritikoak hezi nahi ditugu, baina arrastoa utziko dugu, ziur, eta lehenago edo beranduago nabaritutako da. Gurekin hitz egiteko eskatzen diegun konfiantza bera izan dezagun gure seme-alabengan. ●

350

poliziako "Force Frontière" dispositiboa baliatu dute Irun-Hendaia artean migratzaileen kontra egiteko martxoaren 26 eta 27an: 135 pertsona atxiki dituzte. Aurrez "terrorismo islamistaren" aurka egiteko aitzakiaz erabiltzen zituzten dispositiboak, orain "migrazio klandestino" oren kontra egiteko baliatu dute.

%63

dira "euskara sustatzearen alde edo oso alde" dauden Nafarroako biztanleak, eta %17 baino ez daude aurka, Xabier Erizek eta Carlos Vilchesekek egindako ikerketa baten arabera.

%70

igo dira Osakidetzari loturiko herritarren kexak, EAEko Arartekoak urteko txostenean nabarmendu duenez. Batez ere itxaron-zerrenda luzeekin dute zerikusia kexek.

"Deigarria da zer adinekin preskribatzen zaizkien antsiolitikoak neskatoei: 11-12 urte eskasekin. Zer ari da gertatzen?"



AITZIBER AGIRRE

Elhuyarren Zurrumbiloa proiektuaz mintzatu da kazetaria.

GURASO.EUS (2025-03-25)

"JAURLARITZA INKISIZIOAREN ETA FRANKISMOAREN TEKNIKA BERDINAK BALIATZEN ARI DA, HITZ MODERNOAGOEKIN"

EAEko espetxeetako kultur emanaldiei Jaurlaritzak ezarri nahi dien "zentsura"-ren aurkako manifestua sinatu dute 51 kulturgilek.

2025-04-01

"Elizak immatrikulatu zituen ondasunak itzultzeko prest gaude, epaile batek eskatzen badigu"



FLORENCIO ROSELLÓ

Iruñeko artzapezpikuak adierazi du ondasunak itzultzeko prest direla, baina defendatu du immatrikulazioak legezkoak izan direla.

HALA BEDI (2025-02-11)

TEKNOLOGIA

Teknologia kakatsua eskuratzeko kurba



DIANA FRANCO EGUREN

Ekonomialariei asko gustatzen zaizkie merkatuen jokabideak adierazten dituzten grafikoak, kurbak alegia. Deigarria egin zait zentzu horretan Pluralistic webguneko *"The future of Amazon coders is the present of Amazon warehouse workers"* artikuluan (Amazonen programatzaileen etorkizuna da Amazonen biltegi-tako langileen oraina) Cory Doctorow egileak egiten duen analogia. Langileen ikuspuntutik ikertzen ditu lan merkatuen kurbak, eta teoria bat du: "Shitty technology adoption curve", euskaraz "teknologia kakatsua eskuratzeko kurba". Teoria horren arabera, etorkizunean zure lanean teknologiak izango duen eragina aurreikusi dezakezu, bazterkeria egoeran dauden pertsonen aurka nola zabaltzen den ikusita.

Azken urteetan, teknologien industria handienek kaleratze masiboak egin dituzte (Amazon, Google, Meta...), nagusien soldatak eta enpresen inbertsioak handitu diren bitartean. Hortaz, kaleratzeak ez ditu behar bideratu, baizik eta teknologiak emandako botereak. Langileekiko botere hori handitze bidean, programatzaileek Adimen Artifiziala erabili dezaten Amazon ahalegin handiak egiten ari dela dio artikulua, haien gain duen mendekotasuna murrizteko. Programatzaileen lanaren zentzua ere aldatzen doa: jada ez dute euren adimena arazo tekniko konplexuak eabaztera zuzentzen, txatbot batek modu automatikoan sorturiko kodea berrikustera mugatzen da euren lana. Eta noski, errazagoa da kode-berrikusleak ordeztuta programatzaileak baino. Makinaren zerbitzura jartzen ditugu ez soilik gorputzak, iraultza industrialean bezala, baita adimena ere, gizakion gaitasunen ustia-keitak kapitalismoak hartu duen bide honetan.

Artikuluak erakusten duen Amazonen errealtatea gurera etorriko da. Jakinaren gainean gaude. Gure klase onurak langileen arteko segregazioa bultzatzeko balio izan du, baina horri buelta bat eman beharko genioke, joko berean ez jausteko. Teknologia kakatsua eskuratzeko kurba gainditzeko bide bakarra langileen arteko elkartasuna da. ●

NAZIOARTEA



ETXE ZURIA

"Amerika aberats egingo dugu berriz"

URKO APAOLAZA

Ponpa handiz eta tonu ia mesianikoa erabilia, Donald Trump AEBetako presidentea iragarri du amaitu dela "AEBei azken 50 urtetan egindako lapurretaren" aroa. Muga-zerga "unibertsala" iragarri du mundu osoarentzat: hemendik aurrera AEBetara euren ondasunak edo produktuak inportatu nahi dituenak %10eko zerga jasango du salbuespenik gabe.

Baina Trumpen oldarraldia harago joan da, eta AEBekin komertzialki "gaizki portatu" diren herrialde eta lurraldeei muga-zerga handiagoa ezarriko die. Txina da horietako bat, %34ko muga-zerga ezarriko baitio, eta lehendik ezarrita zeuzkanak gehituta %54ra iritsiko liriteke, beraz. Europar Batasuneko herrialdeak berriz %20ko muga-zergarekin zigortu ditu.

Muga-zerga berriekin herrialde kaltetuenak Hego Globala deituriko munduko zonalde behartsuetakoak izango dira. Esaterako, Madagaskarri %47koa inposatuko dio, Lesotori %50, Laosi %48, Vietnami %46, Bostwanari %37, edo duela gutxi lurrikara handi bat jasan duen Myanmarri %44. Txinako inbertitzaileek presentzia handia duten herrialdeak dira hain justu, eta askok asiar erraldoiaren ekoizpena kastigatzeko modu bat ikusi dute horren atzean.

"ONDORIO NEGARGARRIAK MUNDU OSOKO MILIOIKA PERTSONARENTZAT"

Trumpek muga-zerga globalak iragarri eta berehala erreakzionatu dute mundu osoko agintariak, eta balio-merkatuetan ere nabarmena izan da eragina. Ursula Von der Leyen Europar Batzordeko presidentea esan du ondorioak "negargarriak" izango direla "mundu osoko milioika pertsonentzat". Europar mandatariak azaldu du AEBekin negoziatzeko prest direla, baina negoziazio horiek huts eginez gero EBek badituela tresnak muga-zerga horiei erantzuteko.

Txinak, berriz, AEBei eskatu die bertan behera uzteko muga-zergak, eta hori egin ezean, txanpon berarekin erantzungo duela.

Ikusteke dago mundu mailako makro-ekonomiari nola eragingo dion Washingtonen hartu duen norabideak. Aurretik Kanadari eta Mexikori ezarritako muga-zergak indarrean jarri beharrean, horiek atzeratuz joan da Trump, beste helburu batzuetarako negoziazio tresna gisa erabiltzeko. Akaso esperantza horrekin egongo dira konpainia askotako despatxuetan. Besteok, erosketak egitera goazenean enterratuko gara. ●

Justizia euskararentzat



BAIONA / EHEk deituta, Baionan manifestazioa egin dute apirilaren 6an. Euskararentzat eta euskaldunentzat justizia eskatu dute, eta Euskararen Errepublika aldarrikatu. Hilaren 11n EHEko bi kide epaituko dituzte, joan den abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, desobedientzia ekintza egin zutelako Baionako auzitegiaren eraikinaren gainera igota. *Justizia euskararentzat* leloa bistaratu zuten. Euskararen zapalkuntza ikusarazi nahi zuten eta euskararentzat justizia aldarrikatu.



MOTZEAN

Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak deituta, milaka lagun batu dira apirilaren 7an Donostian, "etxebizitzaren negoziaren aurka" eta "etxebizitzarako eskubide unibertsalaren alde". "Higiezinen sektorearen irabaziak murrizteko antolaketaren aldeko borroka" defendatu dute.

Nafarroako suhiltzaileek Etxegabetzen Aurkako Plataforma osatu dute. "Egoera zailtan jendeari laguntza emateko gaude suhiltzaileok, ez etxetik botatzeko prozesuetan parte hartzeko. Halakoetan parte hartzerako uko egiteko taldea da osatu duguna", azaldu du Patxi Calleiras suhiltzaileak.

Hego Euskal Herriko langile eta pentsiodunak kalera atera dira bizi baldintza duinak bermatuko dituzten gutxieneko soldata eta pentsioak eskatzeko. EAEko eta Nafarroako gobernuei eskatu diete zerga eta aurrekontu politikan funtsezko aldaketa egin dezatela.

Trans Pertsonen Lehen Mailako Arretako Zerbitzuak jarriko ditu abian Osakidetza. EAEko lurralde bakoitzak bere sare propioa izango du eta arreta emateko gida sanitarioa ere iragarri dute, baina zenbait trans kolektibok kritikatu dute ez dituztela haien eskariak kontuan hartu.

SARKOZY ETA LE PEN ESKANDALIZATUTA, ZUZENBIDE ESTATUAK HITZ EGIN DUELAKO

Bere burua 2027ko Frantziako Estatuko presidentzialetako garaile gisa irudikatzen duena –Marine Le Pen– gogorki zigortu du Parisko Auzitegi Korrekzionalak, lau urteko kartzela-zigorra, 100.000 euroko isuna eta batez ere, bost urtez aurkezteko debekua bideratuta. Tonu bereko zigor eskaera luzatu du finantza-prokuradoreak presidente ohiarentzat –Nicolas Sarkozy–. Milioiak bereganatu di-

tuzte, batak diru publikoa lapurtuta eta bere hurbilekoei eta alderdiari banatuta, eta besteak, Muammar Gaddafi Libiako diktadore krudelarekin gordekako tratua eginda. Aferen larritasuna isilean atxiki eta epaituak kasik biktimatzat dauzkate *mainstream* komunikabide handiek. Frantziako komunikabideen errealitateaz anitz erraten digu bi epaiketei begira egindako "kazetaritza" lanak.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Perspektibak bestelakoturik ditugu. Diote momentu antidemokratiko batean garela, hain justu, epaileek legea bete dutelako. Orwellen *1984* liburua bizitzaren ari gara. (...) Historia zuzenean eta abiadura handian idazten ari gara, iraganeko distopia okerrenen heinera heldurik, zeinetan egiaren eta gezuraren arteko mugaren ezabaketa daukagun. Jendea, baita fede onekoa ere, itotzen ari da *maelstrom* nazkagarri horretan, zeinetan erraten zaigun gerra bakea dela eta ignorantzia indarra. Hori dugu *1984* liburuaren bihotzean". Fabrice Arfi kazetariaren hitzak dira, *Mediapart* komunikabide independenteak antolaturiko *Le Pen, Sarkozy: au nom de la loi* (Le Pen, Sarkozy: legearen

izenean) mahai-inguruan plazaraturikoak. Marine Le Penen eta Nicolas Sarkozy frantses politikari ezagunen kontrako zigorrekin buruzko ihardukitzeak aztertzen dabil.

Martxoko azken astean jakin dira Le Penen kontrako zigorra eta Sarkozyren kontrako finantza-prokuradorearen zigor eskaera. Eskuin muturreko RN alderdiaren buruari lau urteko kartzela-zigorra –horiatariko bi fermu–, 100.000 euroko isuna eta hauteskondeetara aurkezteko bost urteko debekua bideratu dizkio Parisko Auzitegi Korrekzionalak; eta 2007tik 2012ra Frantziako presidente izandako Sarkozyren kontra, berriz, zazpi urteko kartzela-zigorra, 300.000 euroko isuna eta bost urtez aurkeztu ezina gal-

detu ditu finantza-prokuradoreak. Bi afera ezberdinentzat epaituak izan badira ere, antzekotasun handiak dituzte: komunikabide handiek egindako auzien jarraipenean, Justiziari begira epaiturikoen harturiko jarreraren, eta pribilegioen eta boterearen ustiaketan. Osagai horiei so jarri aitzin, goazen ikustera zer zaien leporaturik. Komunikabide handiek mamiari gehiegi ez badiote begiratu ere, harrigarria delako bi politikari ezagun horiek bideratutakoa.

Alde batetik, Le Pen dugu, Europako Parlamentuko dirua –4,6 milioi euro epaileen arabera, 6,8 milioi europarlamentuaren arabera– desbideratu eta bere hurbilekoei zuzentzen ariturikoa. Eurodiputatuen laguntzaileen lana or-



DIRU PUBLIKOAREN LAPURRA 2004tik 2016ra Europako diru publikoa bereganatzen aritu da RN alderdia eta epaileen arabera, Marine Le Pen izan da jukutria horren bideratzailea (Jean-Marie bere aitarekin batera). Lan kontratu faltsuak egin eta milioiak lapurtu ditu, 4,6 milioi euro epaileen arabera.

daintzeko Bruselak emandako diru publikoarekin alderdiko langileak, edo hobeki erran Le Pen familiakoak eta horien hurbilekoak, kontratatu zituzten 2004tik 2016ra. Le Penez gain, alderdiko beste 23 kide ere erruduntzat jo dituzte -Le Penek du zigor potoeloa bildu-, eta RN alderdiari ere bi milioi euroko isuna ezarri diote -erdia gibelapenarekin-.

Beste aldetik, Sarkozy dugu, 2007ko presidentetzarako kanpainaren legez kanpoko finantzaketagatik epaiturikoa, Muammar Gaddafi Libiako diktadore zenarengandik milioiak jaso izanaren frogak direlako -50 milioi euro, 2007ko Libiako Gobernuaren dokumentu ofizial baten arabera-. Finantza-prokuradorearen arabera

“Boterea eta dirua elkar topaturik dauden horretan, epaituak bestelakotu dezake egoera, Justiziaren epaiketa bideratuta. Iritziak manipulatzeko laboratoriorio batean gara”

Fabrice Arfi (kazetaria)

ez da dudarik: "Ustelkeria-paktu pentsaezina, izugarria eta zikina" egon da bi buruzagien artean. 2005ean hasi zituzten gordekako hartu-emanak,

garaian Barne ministro zelarik Sarkozy. Milioiak Sarkozyren kanpaina diruztatzeko eta trukean abantaila diplomatikoak Gaddafirentzako: Abdallah Senoussi militarra atxilotzeko nazioarteko aginduaren ezeztatzea, Total konpainia frantsesarentzat petrolioa ustiatzeko kontratu bat, eta bi herrien arteko merkataritza hitzarmenak, tartean, Frantziaren partetik espioitza materialaren salmenta. Baina oroz gainetik, bi herrien arteko harremanen garapena eta horrek ondoriotzatuko zion "errespetagarritasuna" zuen lehentasunean diktadoreak, finantza-prokuradorearen arabera. Sarkozyren ondoan, beste hamabi ere dituzte epaitzen, tartean, hiru Frantziako ministro ohi.



MEDIAPART-EN IKERKETAK Ikerketa-kazetaritza sakona bideratu du *Mediapart* komunikabide independenteak, bi afera horiek azalertzeko. Le Penen kontrako epaia eta Sarkozyren kontrako zigor-eskaera jakin bezain laster osatu zuten *Le Pen, Sarkozy: legearen izenean* mahai-inguru.

KOMUNIKABIDEEN ARDURA

"Disoziazio baten aitzinean gara. Bada telebistak kontatzen diguna eta auzitegian iragaten dena. Harrigarria da han eta hemen 'dosierra hutsa da' entzutea. Hori dioten kazetariak ez dira inoiz egon epaiketan, ez ditut inoiz ikusi, ez dute dossierreko orri bakar bat ireki. Epaiketan egon den inork ez dezake erran dosierra hutsa dagoenik", dio *Mediapart*-eko kazetariak.

Bi kasu horiek azalerratu zituen *Mediapart*-ek, puntako ikerketa-kazetaritza eramanik. Funtsean, gezurrak zabalitzen ari zirelakoan, komunikabide horren kontra jarri zuen salaketa Sarkozy 2013an –*Mediapart* hobengabetu zuen Kasazio Auzitegiak 2019an–. Hamahiru urte berantago, tesia berarekin segitzen du presidente ohiak, nahiz eta lana dorpea zaion, ikusita bere kontrako kronologia zehatzak, dokumentuak zein lekukotasunak.

Frantziako komunikabide handien eta eskuinaren –baita eskuin muturraren– artean dagoen loturaren itzala ageri da bi epaiketa horiei buruzko analisi, titular eta ondorioztapenetan. Frantziako Estatuan prentsa idatziaren

Frantziako Estatuan prentsa idatziaren %80, telebista kateen %60 eta irratiaren %50 dira 11 bilioidunen esku artean. Horien artean dago eskuin muturraren sustatzaile ezaguna den Vincent Bolloré

%80, telebista kateen %60 eta irratiaren %50 direlako 11 bilioidunen esku artean. Horien artean dago, eskuin muturraren sustatzaile ezaguna den Vincent Bolloré, ikuspegi ezkertiarra isilarazteko eta eskuin muturraren ideologia zabaltzeko misioari segi aitzina doana. Monopolio horrek dakarren arriskuaz RSF Mugarik Gabeko Kazetariak egitu-

rak ekoizturiko *Le système B. L'information selon Bolloré* (B sistema. Informazioa Bolloréren arabera) dokumental laburra ikusgai da Interneten.

Hori horrela, epaiketen hurbileko eta sakoneko jarraipenik ez dute egin, eta behin auzia burututa, akusatuen adierazpenen eta horien aldekoen bozgorailu egin dira. Demagun, Le Penen kontrako epaiarentzat ondokoak zabaldu zituzten: "Demokrazia legeen zangopilatzea" (Kremlinaren bozeramailea), "gerra deklarazio bat" (Matteo Salvini), "Frantziako demokraziaren bukaera" (Jordan Bardella), "sistema judizialaren gehiegikeria" (Elon Musk)...

Finan, botereari eta pribilegioei begiratuta bakarrik ulertu daiteke fenomeno *Mediapart*-eko kazetariaren arabera: "Zintzotasunari kalte egiten zaio erraterakoan Justizia arazo bat badagoela. Boterea eta dirua elkar topaturik dauden horretan, epaituak bestelakotu dezake egoera, Justiziaren epaiketa bideratuta. Informazio faltsua fabrikatzeko eta iritziak manipulatzeko laboratoriorik batean gara, eta hori, azkenean, oinarrian dauden aferen larritasuna ahanztaratzeko".



50 MILIOI EURO ARTE Sarkozyren kontrako epaia abian da. 2007ko presidentzialetarako kanpaina Gaddafi diktadorearen sosarekin diruztatu izana leporatzen zaio. Hauteskundeak irabazi eta Frantziako presidentea izan zen 2012a arte. *Mediapart*-ek argira ekarri zuen eskandalua 2012an.

Ebidentzien ukazio sistematikoa, kontraerrian eta gezurrak zein dokumentu faltsuen fabrikazioa, Justiziarri bizkarra erakutsita egon dira tinko biak. Frantziako Estatuko presidente izandakoak eta 2027an Frantziako presidente izan nahiko lukeenak Justiziarren kontrako horrelako jarrera eduki izana azpimarragarria da. Finean, horrela ondorioztatzen du bi epaiketek utzitakoa kazetariak: "Zuzenbide Estatuaren aurkako populismoaren hitz basatiak askatu izana; eta sakonean, pribilegioen itzuleraren eta legearen

aurreko berdintasunarekin bukatzeko nahi sakonen adierazpena". Munduari begiratzea besterik ez dago ohartzeko eskuin muturra boterera arribatu eta Zuzenbide Estatu desegiteari lotzen zaiola, eta nolazpait, hori egin ahal ez izatea dute "antidemokratikotzat".

Sentimen hori are gehiago elikaturik dute Le Peni hauteskundeetara aurkezteko aukera moztu zaiolako. Hots, ezingo luke aurkeztu 2027ko presidentzialetara -hala ere, helegitea jarri duenez, oraindik ikusteke dago, baina gaur egungo epaiari segi, ezingo luke-. RNk

debeku horri eskandalagarritzat jo du eta nola ez, *mainstream* komunikabide guziak dira epaiaren zati horri begira jarri. Alta, oinarrian diru publikoaren lapurreta dago. Bere hurbilekoak aberasteko eta bere alderdia sendotzeko, milioiak lapurtzen arituriko bat presidente aukerari kausitzeko aukerari bidea mozteko epaia izan da. Epailleak erran bezala, Le Penen jarrera eta iragana ezagututa, "berrerortzeko arrisku argiak" daudelako, eta demokraziaren bermeari eta ordena publikoari "kalte" egingen liokeelako. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



AHLEM



Hasier Larretxea

ARRAIOZ, HOMOSEXUALITATEA, MADRIL



BEHARRIK GAUZAK GARBI NITUELA, ETA TTIKI-TTIKITATIK GARBI JAKIN NUELA ZER NAHI NUEN, ZERK ERAKARTZEN NINDUEN



Larretxeatarren oinordea da, aizkolari, harri-jasotzaile, txinga-eramale eta, oro har, herri-kirolari handien ondokoa. Patxi du aita; Donato, berriz, osaba. Hasier Larretxea, aldiz, da gizarte langile, da idazle, da homosexual. Harro beharko genuke denok.

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Espainiako hiriburuan bizi zaitugu aspaldixko, baina Iruñera begiratzara orain.

Hamabortz urte Madrilgo osasun mentaleko talde komunitario batean lanean aritu naiz, eta, joan den urtearen akabailan, lur jo nuen. Laneko prekarizazioa izan zen, tartean. Enpresa pribatuarendako ari ginen lanean, nahiz diru laguntza publikoak jasotzen zituen. Aski lan ederra iduritzen zait osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak artatzea. Erabiltzaileak eguneko zentrorra etortzen ziren, beraien garapenaren araberrako zentroetara. Ni, berriz, lantaldeko kideekin batera haien etxeetara joaten nintzen, eta bakoitzaren egoeraren diagnosia egiten nuen, beraien beharrianak betetze aldera. Hainbat elementu dira

hor jokoan: pertsona, familia, isolamendua, trauma, suizidioa...

Suizidioa ere hor da?

Bai, bada! Eta gure helburuetakoa zen, adibidez, pertsona hauen artean den suizidio-tasa jaustea eta, bertzeak bertze, pertsona hauek espazio publikoetara hurbilaraztea, eta psikiatrarenera laguntzea edo bideratzea. Osasun mentalean lan egitea ederra da, baina baditu albo-kalteak ere.

Inondik ere, erran duzunez: “Lur jo nuen”.

Laneko baldintzak ez ziren inoizko onenak. Erran dut, prekarizazioa. Lau lagun ginen lan-taldean, baina ez ginen talde finkoa ere. Batean, bajak. Bertzean, lanki-

de berriei ez zietela kontratu finkorik egiten eta, aunitzetan, unean unekoa eginez aritzen ginen lanean. Lana aitzina atera behar zen. 34 pertsona artatu behar genituen, ratio guzietatik goiti genbiltzan, eta urtero, lan beti berriak sortzen zitzaizkigun: solasak batzuekin eta bertzeekin, institutuetaiko sentsibilizazio kanpainak, Nazioarteko Osasun Mentalaren eguneko dinamikak. Eta, erran dut, lan-talde finko bat izan beharrean –gauza guziz inportantea baita, artatu behar ditugun pertsonendako ere!-, ahal genuen gisan ari ginen. Eta ez nuen sinesten.

Zertan ez zenuen sinesten?

Egiten ari ginen horretan. Ondoan nuen lankidea bi-hiru hilabeterik behin aldatzen bazen, nola izanen zuen gu baitan



Hasier Larretxea Gortari

ARRAIOZ, 1982



Gizarte langilea eta idazlea. Madrilen bizitzera joanda egin du bizia. Hainbat liburu ditu argitaratuak, baina iazko udazkenean argitaratuak eraman gaitu beragana: *Idaztea gibelera zenbatzen ikastea da* (Alberdania, 2024), irakurtzea merezi duen liburuetakoa, atzo bezala gaur ere hurkoa nola baztertzeko eta estigmatizatzen dugun erakusten digun lana. "Berdinak gara, ezberdinak gara", garai bateko esloganera eraman gaituen liburua.

konfiantzarik arazoak zituen diagnosi paranoidea zuen pertsonak? Eta ahulduz joan nintzen, lur jo nuen arte. Laneko baldintzak izan zen arrazoia. Maite nuen lana utzi nuen. Hainbat urtez, Madrilen maila mikrosozalean ere lan egin dut, migratzaileekin eta bertze hainbat kolektiborekin. Eroso aritu naiz osasun mentalararen arloan lanean, zirkulu bat hetsiko banu bezala zen, nik ere familia istorio bat bizi izan bainuen. Literatur lan batean lan-tzen ari naiz orain.

Zer da familia istorio hori, erran baliteke?

Osaba batek tiroz hil zuen irakasle bat, nik 16 urte nituelarik. 1996an izan zen. Ez zuten bata berteza ezagutzen. Osaba eri zen, familiak ez zuen haren berririk, falta zen familia bazkarietan eta bertze. Brotea eman zion, eta hil zuen bertze pertsona bat. Episodio hura zaila izan zen familiarendako. Bertzalde, osaba hura artatua izan zen nik Madrilen lan egin nuen entitatean. Bertzenaz, Iruñean jasotzen zuen arta. Bere buruaz bertze egiten ere saiatu zen. Ez zuen lortu, baina matrailezurra puskatu zuen. Ospitalean eduki zuten, kartzelan ere bai, eta preso zela bisitatu izan nuen. Gure etxeak ginen harekin biltzen ginen bakarrak. Nik, gida-baimena atera, gurasoen autoa hartu, eta bisitan joaten nintzaion.

Eta hurrena?

Azkenean, egun batean, Iruñean psikiatrarekin egotetik zetorrela, bere buruaz bertze egin zuen. Almandozko herria gibelean utzita, autotik irten eta Maringo zubitik bota zuen bere burua. Familian isiltasun handian bizi izan dugu gertatua. Traumatikoa izan zen. Orain baino lehen, familiako kide eta lagunekin harremanetan jartzen saiatu naiz, osaba haren ingurukoak jasotzeko. Horixe dut literatur proiektua, baina ez dut orain horretaz sobera solastu nahi. Erran, bakarrik, batzuekin eta bertzeekin hitz egiten saiatu naizela, eta isiltasun handiaren kontra topo egin dudala. Gai honek badu adar aunitz, eta horietarik batzuk lantzen ari naiz, landa eremuetan buru gaixotasuna pairatzen duten pertsonak dituzten zerbitzuek eta bertze. Tronpatuta egon ninteke, ez bainaz hemen bizi, baina Baztan-Bidasoa aldean bada psikiatriarik osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak artatzeko?

Oraintxe ezin zure galderari erantzun nik, ez baitakit.

Gisako gogoetak egin nahi ditut. Desitxuratuta egon naiz, heldu naiz nire burua ikustera ez idazle ez gizarte langile gisa, eta barneko prozesu bat abiatu dut, berkonektatze bat, dolua ere eginez. Eta ohartu naiz literatura bitartekaria izan daitekeela berkonexioak egiteko garaian. Errate baterako, lehen ere, literatur tailerrak gidatu izan ditut Madrilen, liburute-gi publiko batean, osasun mentaleko arazoak dituen jendearekin. Bada tailer aunitz, baina osasun mentaleko arazoak dituen jendea ez da, bertze gabe, literaturara hurbiltzen. Ni, horretaz oharturik, beraiei zuzendutako saioak proposatzen hasi nintzen, eta jendea etortzen hasi zen. Hasmentan entzule gisakoak zirenak, idazten hasi ziren: traumak eta bertze kontatzen. Eta argitalpena ere egiten genuen. Orduan, lan horretan sinesten hasi nintzen, jakinik ni ere idazketa erabiltzen hasi nintzela ariketa askatzaile gisa.

Literatur tailerretan nahiz irakurle klubetan, irakurle jakin bat hartzen da kontuan.

Tailerretan, errateko, kolektibo hauek ez dira kontuan hartzen. Eta horretan ari naiz ni. Buru osasuneko gaixoak dira, edo adinekoak, edo baztertuak... Erran nahi baita, beharrezkoa iruditzen zait espazio publikoetan kolektibo ezberdinak kontuan hartzea, haiei nolabaiteko arnasa ematea. Zenbait harreman egin ditut hemen [Euskal Herrian], eta nire asmoak harrera arras ona jaso du. Ni 500 kilometrorra bizi naiz, Madrilen, eta ohartu naiz hango eta hemengo dinamika ezberdinak direla. Hemen, erraztasun eta hurbiltasun handiagoak topatu ditut, erraten ari naizena kontuan hartzen dutela iruditu zait. Nire esperientzian, idaztea ihesbidea ere bazen: ezlekuak, dis-tantzia, presentziak eta ausentziak... Emozionatuta nago hemen pertsona batzuek jaso dudan harrerarekin, eta horrek nire prozesuan lagundu dit, nire baitako ahotsa eta ilusioa berreskuratzen, garai bateko Hasier hura oraingo egunera ekartzen.

Idazteaz ari, ez duzu liburua argitaratu zaharra: *Idaztea gibelera zenbatzen ikastea da*. Hortxe ezagutu dugu Hasier Larretxea Gortari.



Gogoetatik heldu da liburua. Zer dugu go-goan, eta zer ez? Zer da ahanztura? Zer atzentzen dugu? Zertaz atzentzen dugu bizi izandakoa?... Ohartu nintzen Hasier aunitzez eraikia nagoela. Hasier bat zen hemen bizi zena, hatxerik gabeko Asier -beti erraten dut hori, broman-, argitaratzen hasi aitzineko lehenengo Hasier hura, eta ondokoa, Madrilerara bizitzera joan zena. Hara joatea ez zegoen nire ikusmiran, baina bizitzaren seinaleek hara eraman ninduten, senarra dudanak han ikasteko plana egin zuen. Erronka handia izan zen Madrilerara joatea, haustura ere bai, zerotik edo hutsetik hasi behar izan bainuen, baina arnasa hartzea ere izan zen, gauzari distantziatik begiratzeak on egin zidan... Prozesu aunitz egiteko modua erraztu zidan Madrilerara joateak.

Hanka bat han, bertzea hemen zaitugu orain.

Madrilen, ordea, iragan bat lausotu zitzaidan. Iruditu zitzaidan kasik uko egin niola iragan bati, behar nuela iragan hura gibelean utzi. Eta, pandemia garaian, braust!, gertakari eta oroitzapen jakin batzuk etorri zitzaizkidan, eta erran nion neure buruari horiek gabe ez nintzatekeela orain naizena izanen: "Izan nintzen hura ere banaiz, ezin diot uko egin!". Sor-

terriarekiko konexioaz ari naiz, baita bertze zenbait klabez ere, "ezberdin" den pertsona horrek egin duen -eta egiten ari den-, bidearen kontestuan.

"Ezberdin" erran duzu, baina zertan gara gu ezberdin, Hasier? Zertan ez dugu erraten ezberdina neu naizela, eta ez zu?

Ez luke behar. Hala ere, nik neure izenean bertzerik ez nezake hitz egin. LGTB kolektiboan nahi bertze sentsibiltate dituzu. Nire kasuan, erakartze bat zen. Ni bertzeak bezala aritzen nintzen pilotan eta futboleant. Bertzeren artekoa nintzen haurtzaroran eta gaztaroran, baina banekien zerk erakartzen ninduen, eta, hala ere, ezin nion erakartzen ninduenari zuzenki begiratu. Akolito izan nintzen, eta pozik nintzen, baina nire egoeran erlijioak ez zuen laguntzen. Eta, bertzalde, erramoldeak ere hor ziren beti, marikoia goiti eta marikoia beheiti...

Betiko leloa.

Batzuek eta bertzeek afeminatua den gizona gutxiesten beti, aski gizona ez dena mespretxatzen. Eta, hori, kontuan

“
**Iruñetik bueltan,
gurasoei etxean han
eta hemen uzten nizkien
Kattalingorri espazioan
jasotako triptikoak.
'Gurasoei nola erran?'
zen nire kezka”**

hartu, ez gaur egun, ez hirian, landa eremuko herri ttikian [Arraioz] baizik, 1980ko hamarkadaren akabailan eta 1990ekoaren hasmentan. Zertan garen ezberdin galdetu didazu, eta ez luke behar, baina arrotz sentitzen zara, ezberdin, eta, bertzeak bertze, ohartzen zara narratiba aunitzetatik kanpo zaudela, presentziarik eta erreferenterik gabe, harik eta, batean eta bertzean, jendea armairutik ateratzen ari dela ikusi genuen arte. Ezberdin sentitzen ginen, ezinbertzean.

Eta ezberdin sentiarazten zintuzten.

Baita hori ere. Bertzerik da nola den gauza gaur egun nire kasuan, erran dudana prozesu horiek denak egin eta gero. Baina errandako hori izan zen nire haurtzaro-nerabezaroetan bizi izan nuena eta, berriz erraten dut, landa eremuan, tiki-ttikitatik entzundakoak ere hor direla. Ez dizute zuzenki minik egin nahi, baina hor da mina beti.

Liburuan kontaktzen duzunez, behin, 15 urte zuk, ama etorri zitzaizun,

negarretan, mutilak gustatzen zitzaizkizula oharturik.

Kontatzen dudan bezala izan zen. “Ez zara ezkonduko... Ez duzu seme-alabarik izanen... Zer erranen dute herrian?”, erran zituen. Beldurra, ezberdin izateari. Eta nola kudeatu hori? Ez da erraza 15 urte dituzularik. Kontua da amak dirua ematen zidala, eta etortzen nintzela Iruñera eta, beharrik!, erosten nituen liburuak. Orduan hasi nintzen euskal literatura leitzen! Sarri[onaindia], [Anjel] Lertxundi, [Bernardo] Atxaga... Diskoak ere bai. Aitaren erreferentzia hura-eta! [Patxi Larretxea, herri-kirolari aipu handikoa] Iruñetik bueltan, gurasoei etxean han eta hemen uzten nizkien Kattalingorri espazioan jasotako triptikoak. “Gurasoei nola erran?” zen nire kezka. Orditik hona lantze handia egin dugu, bi aldeetatik ere. Eta, beharrik!, gauzak garbi nituela, eta ttiki-ttikitatik garbi jakin nuela zer nahi nuen, zerk erakartzen ninduen.

Herri-kirolari familia izen handi batekoa zara eta aizkoran ere saiatu zinen zu.

Ezin nuen bertzerik egin. Gazte-gaztetatik herri-kirolen sugarra sartu nahi izan zidan aitak nire baitan. Ttikitako argazkiak ere baditut, zurezko harriak goititzen, aizkora ttiki bat hartu eta jolasean... Nerabezaroen -aitak ez zidan deus erran-, baina segur aski bazekien homosexuala nintzela. Arestian erran dizkizudanak -amaren pasadizo hori-eta-, lehenago-koak ziren. Nik, jakina, asertibitaterik ez nuen. 17 urte nituelarik, Euskal Herriko Gazteen Aizkolarari Txapelketa egin zen Doneztebeko pilotalekuan. Elizondon ilea azulez tindatu zidaten, baina nire asertibitate faltagatik, nik ez bainuen buruan ideia hura. Etxera itzuli, eta pailazo bat nintzela erran zidaten, eta arrazoi zuen [aitak], pailazo bat ematen nuen. Garai

hartan, hardcore musika aditzen nuen, musika intentsoa, estetika ere halakoa nuen, beltzez jantzia, kateak... Azkenean, ilea dekoloratuta atera nintzen txapelketan. *Rara avis* bat. Baina ez nuen bertze aukerarik. Ez nuen anaiak duen izakera, aitari ezetz errateko indarra.

Eskuak odoletan, enbor guztiak txikitzea ez zinen heldu.

Baina kontua da entrenamenduetan lana akitzen nuela! Nafarroako hirugarren mailako txapelketan, errate batera, moztu beharreko enbor guztiak moztu nituen. Baina Doneztebeko egun hartan, Larretxearen ondorengoa nintzen. Presioa kristorena zen. Ez nuen mentsik, baina aizkora eta herri-kirola ez ziren nire ametsa. Literaturan nenbilen, eta homosexualitatean, ea ezagutuko nuen maitatuko nuen gizonik, maitatuko ninduen. Eta, aldiz, ni han nintzen, Amaiurko plaza hartan, aizkoran, enbor txikitzen. Ederra da orain modu honetan solastea, baina aitarekin ez nuen honetaz solastu urte luzez. Orain elkarrekin egiten ditugun emanaldi performatiboak egin ahal izateko, kristorengo lanketa psikologikoa eta katartikoa egin behar izan dugu, psikoa-nalizia ere iraganda.

Zuen aitarekin solastu naiz Arraiozen zugana baino lehen. Egun hartan garbi ikusi omen zuen herri-kirola ez zela zure bidea. Bakean utzi omen zintuen.

Sekulako lotsa izan nuen nik, lana ez akituta, eta segur naiz aitak ere sekulako lotsa pasatuko zuela, nik bezala. “Larretxea” izen handia da herri-kiroletan -Donato osaba dut!-, eta ni, berriz, eskuak odoleztaturik, ez nuen lana akitu ahal



Banekien zerk erakartzen ninduen, eta, hala ere, ezin nion erakartzen ninduenari zuzenki begiratu”

izan. Desastrea! Hori pisua izan dut urte luzez. Bertzalde, badakit desastrez eginak gaudela. Aitak beti erran izan du kirolariak ere egun txarrik izaten dutela. Horrek salbatu ninduen, pixka bat, egun hartako desastretik.

Zer deritzozu oraingo egoerari? Dibertsitateaz ari naiz, alegia.

Orain, zorionez, Euskal Herrian dibertsitatea biziki presente dago, bai he-dabideetan, bai kulturen eta bertzeetan. Zaharkitua sentitzen naiz hau erraten, baina 1980ko hamarkadan landa eremuan sortu ginenok ez dugu oraingo errealitaterik izan. Are guttiago, euskal munduan. Liburuan [*Idaztea gibelera zenbatzen ikastea da*] hainbat istorio eta gertaera idatzi ditut gai honen inguruan. Gizartea ez zegoen prest, gu ere ez geunden prest, edo gutti-aski bertzerik ez zegoen prest.

Liburuak zenbait inpresio egin didala erran behar dizut, eta mina eragin ere bai.

Aunitz eskertzen dizut. Anjel Errorekin aurkeztu nuen Madrilgo Euskal Etxean, eta solasaldi arras interesgarria izan genuen bakoitzaren bizipen eta inpresioak azalduz. Solastu ginen ere eredu kanonikoetik landa argitaratzen diren liburu hibrido, dietario edota autobiografie ematen zaien tartean. Aunitzetan, entsegu bildumaren baten barnean ateratzen dira, nahiz ez izan entsegu bete-betea. Eta nola erran?... Batzuetan hasten naiz gauzak era batera erraten, eta sartzen naiz sartu behar ez dudan tokietan. Ez dakit den Madrilen bizi naizelako, edo bertze arrazoi batzuk diren, aunitzek liburuaren gaineko gauza polit aunitz erran dizkirate. ●

KANPER MUNDUA GUSTATZEN ZAIZU?
EZ GALDU HAMAIKANPER SAIOAN PARTE HARTZEKO AUKERA!
EMAN IZENA ETA AURKEZTU ZURE FURGONETA

Eskaneatu QRa eta bat egin lehiaketarekin
Hamaika telebista zure bila dabil!
www.hamaika.eus/saioak/hamaikanper

Simon Macías-ek
 aurkeztutako saioa

HAMAIKANPER
 LEHIAKETA

hamaika



Ukrainako gerraren beste irakurketa bat

Ukrainako gerrar hasierako zergatiak ez dira azaldu zizkigutenak bakarrik, beste arrazoi batzuk ere badaudelako. Errusiak zioen Ukrainako errusiar hiztunen defentsarako urrats bat eman behar zuela; Ukrainako Gobernuak, aldiz, Errusiaren armadari aurre egin behar zitzaioela, inbasioa geratze aldera. Baina ezkutuan geratu zen lur arraroen auzia, Mendebaldeko agintariak begiak ipinita zeuzkaten lur preziatu horietan, etorkizuneko ekonomian protagonismo itzela izango baitute.

Nolanahi ere, lur arraroak gaurko ekonomiarentzat lehengai estrategikoa dira: Adimen Artifizialean, auto elektrikoetan, mugikorretan, espazio ontzietan eta industria militarrean. Lur arraro horien planetako ustiapen gehiena Txinan gauzatzen da. Izan ere, hirutik bat, bederen, Txinako meategietatik ateratzen dira, eta herrialde hartatik inportatzen dituzte, bai AEBek zein EBk, Txinarekiko menpekotasuna uka ezina delako. Eta hor sartzen zaigu Ukraina, non lur arraro ugari dauden, munduko existentzien %7; halaber, meategi gehien Errusiak eskuratutako eremuan kokatzen dira.

AEBetako demokratek “dirulaguntza” andana eman zioten Ukrainari, horrela Errusia ahulduko zutela pentsatzen baitzuten, eta Trumpen garaiarenarekin, egoera erabat aldatu da. Nire uste apaletan, Trumpen Errusia erakarri nahi du eta Txinatik aldentu, hobe baita Errusia bezalako etsai batekin adiskidetzea borrokatzea baino; gainera, Errusia mili-

Europarrok kontzientziatu nahian, Errusiarekiko izua sartu nahi digute, militarizazioa onar dezagun. Baina Errusiak noiz inbaditu du Europa? Begi bistakoa da alderantziz izan dela

tarki eta ekonomikoki, antza, ez da hain arriskutsua.

Helburu hori kontutan hartuta, bai Trumpen zein bere aginte taldeak berreskuratu nahi dituzte Bidenek emandako dirutzak, eta lur arraroen ustiapena jarri dute AEBen eta Ukrainaren arteko negoziazioen erdian, horrela zorrak kitatuko dituztelakoan.

Azken finean, munduko ekonomia banatu nahi dute hiru herrialde nagusiek, XIX. mendean Britainia Handiak eta Frantziako Estatuak egin zuten moduan. Orain, antza, AEBek, Errusiak eta Txinak banatu nahi dute mundua, EB kanpoan utzita.

Bestalde, protagonismoa eskuratze aldera, EBko agintariak pentsatzen dute



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

defentsarako industria izan daitekeela oinarri sendoa, atzeratuta geratu zaigun ekonomiari bulkada emateko. Horretarako, europarrok kontzientziatu nahian, Errusiarekiko izua sartu nahi digute, militarizazioa onar dezagun.

Baina Errusiak noiz inbaditu du Europa? Historiari gainbegirada bat ematen badiogu, begi bistakoa da alderantziz izan dela azken mendeetan. Izan ere, Napoleonek inbaditu zuen; boltxebikeek boterea hartu ostean, errusiar “armada zuriaren” laguntzaile frantziar eta britainiar gobernuek; eta Hitler ere Errusian sartu zen eta 26 milioi sobietar hilotz utzi zituen. Beraz, oso zaila egiten zait nireganatzea, orain, Errusiak Europa inbadituko duenik.

Baina nola defendatu Europa? Izan ere, industria militar europarra ahula da, salbu Frantziako Estaturak eta Britainia Handiak. Gainontzeko herrialdeetan gutxitxo ekoizten da eta, berrarmatzekotan, AEBei erosi beharko dizkiegu armak, jadanik armetan gastatzen dugunaren %55 han egiten baitugu. Haatik, AEBekiko menpe jarraituko dugu, eta herrialde horretako industria militarra profitatuko da.

Epe motz eta ertainean AEBei armak erosten jarraituko dugu, bestela, jai. Eta soldaduak nondik lortuko ditugu? Prest gaude soldaduen hilotzei harrera egiteko, gure oligarken patrikek diruz gainezka egiten duten bitartean? Espero dut gure artean, berriro, mugimendu antimilitarista irmo bat sortuko dela. ●

2.361



NORA SALBOTX ALEGRIA
MAISTRA



MAIDER LETURIAGA

Garai kuriosoak bizi ditugu eta bizi gaituzte, zinez. Hezkuntza krisian dela dioten garaiak dira eta, gutxien-gutxienean, aliritzira, ba aizue, 2.361 urte ditu gaugergero boladatxoak.

Ez zen ba debalde joan Aristoteles bere maisu maite Platonen akademiatik lizeo bat muntatzeko. Lizeo bat, bistan dena, akademia zahar horiek ez bezala, garai berrien joeretara ongi ekarritakoa, beraz, modernoagoa (klasikoagoa?), memoria instrukzio kontzeptual hutsa gaintzera zetorrena, non hondar helburua pentsatzen ikastea izanen baitzen, askatasunean pentsatzen ikastea, hain zuzen ere.

Pen-tsa-tzen-i-ka-si, ez disimula, eza-guna egiten zaizu, hezkuntza komunitateko kamarada aunitz eta arras sufritu hori. Bazen haiena begirada luzeko proiektzioa gero! Ai, Aristotelesekin baleki... Ai, ai, maistrak baleza.

Afera da horretarako metodologia eta teknika berriak ezartzea ezinbertzekoa iruditu zitzaizola urrezko mediaren filosofoari, eta, gauzak horrela, pentsamendu, hausnarketa eta dena delakoak paseatzen irakastea erabaki zuela. Hartan, hasi ziren peripatetikoak korridorrean goiti eta beheiti pentsatzen ikas-


ten eta ikasten pentsatzen, ttipi-ttapa. Hezkuntzaren krisiaren kontu hori ere akaso silogismora ekartzeko tentazioa izanen zuten lizeo ibilzale hartan; Hezigue guztiak krisian dira. Akademia hezigunea da. Beraz, akademia krisian da. Orain eta *in secula seculorum*.

Bi mila eta piko urteren buruan, inoren harridurarako, hezkuntza krisian da, izan ere, hezkuntza krisian egotea behar duen sistema batean bizi gara. Eta asmatzen ditugu hortaz teknikak eta programa berriak, metodologiak bernizatzen dira eta tramankuluak ekartzen, ikasle bakoitzeko bana, akabo miseria! Bide batez, izena aldatzen diegu oinarrian beti hor izan diren eta izan diren edukiei eta aztoratzen gara, gaitasunik gabeko kontzeptuak eta kontzepturik gabeko gaitasunak posible balira bezala eta pedagogia kritikoak horretarako tresnarik eman izan ez baligu gisan. Finitzeko, enpresari gorbatadun horien hiztegi eta erran-moldeak gurera ekartzen dizkigute denak serios itxura har dezan, nahiz eta zuk eta biok badakigun Lanpostuen Eskaintza Telematikoan zein Ordeztagunean gure lehen lana lortu eta erretreta egunera arteko bidea krisi hutsa izanen dela diskurtso ofizialetan.

Han joan da magisteritza graduko ikasle bat, praktiketako bere lehen egunean, Mari Carmenen gelara, eta eskatu die honek haurrei ailegatu berriari azaldu diezaiotela zer behar den maisu on bat izateko. Erantzun dute, erantzun dutenez: zenbakiak eta letrak jakin beharko dituzu, haurren izenak baita ere, ongi zaindu beharko duzu, jostailuak izan beharko dira pilaka, leitzen eta kartak idazten erakutsi beharko duzu, baita errieta egiten eta poesia idazten ere, haurren sekretu batzuk gurasoei kontatu beharko dizkiezu, dantzan eta kantuan jakin beharko duzu, antzerkia egiten, ipuinak kontatzen, antolatzen eta lan ederrak egiten, triste dauden haurrak animatu beharko dituzu eta urduri daudenak lasaitu, haurrekin egunero-egunero solas egin beharko duzu. Kitto.

Eta gutxi ez denez, ba, aizue, hor duzue curriculum bat, jakintzak, plazerak, aitortzak, arauak, afektuak dakartzkiena, kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrazko edukiz betea, gaitasunak kontuan hartzen dituen eta, bidenabar, hezkuntza kontu hauetan adituenean pentsatutakoa eta garaiz kanpokoa dena, berdin balioko dizuen bihar zein etzi zein 2.361 urte barru. ●

Zer dugu bisexualitatearekin?



HIRUKI LARROXA

Transfeminismoak argia eta konplexutasuna ekarri ditu gorputz, genero eta desirei buruzko eztabaidetara. Hala ere, itzalak ere sortu ditu. Ustezko koherentzia politiko erradikal baten izenean –askotan hegemonia oso zehatz bati lotua–, diskurtso transfeminista batzuek pertsona bisexualiekiko bazterketa-logikak erreproduzitzen dituzte. Bai, diskurtso, begirada eta isiltasun deseroso eta bortitzak sortzen dituen bifobia diskretuaz ari gara.

Gezurra badirudi ere, ingurune militante jakin batzuetan, bisexualitatea "queer itunaren" aurkako traiziotzat hartzen da. Areago, "anbiguoegi", "heteroegi" edo "normatiboegi" gisa etiketatzen da, eta bere zilegitasuna ez da aitortzen. Ikuspegi nahiko minoritarioa eta anakronikoa, bide batez; baina botere eta hegemonia politiko eta kulturalako zenbait espaziotan oso presente dagoena.

Espazio horiek, printzipioz, subjektu politikoaren irekiera defendatzen dute, baina paradoxikoki bollera eta marika subjektua estandarizatu eta *gatekeeping* politika gauzatzen dute –behar bezain queer kontsideratzen ez diren pertsonak baztertzeko dinamika–.

Jarrera hori, bidegabea izateaz gain, guztiz kontraesankorra da transfeminis-

moak defendatu beharko lituzkeen printzipioekin. Alegia, pertsona orok norbere sexualitate plastiko eta desira-askatasunetik erotikoki eta afektiboki harremanak nahierara eraiki ahal izatea. Inongo ideologiari konturik eman gabe eta purutasun politikorik frogatu behar izan gabe.

Feminista transbaztertzailleekiko paralelismoa saihestezina da. Feminismo esentzialista baten izenean trans identitateen ukazioa egiten duten horiek bezalaxe, lubaki transfeministetatik bisexualitateari zilegitasuna kentzen diotenak negazionismoaren antza duen jarreran erortzen ari dira: "Zure esperientzia nire esparru teorikoan sartzen ez bada, ez da baliozkoa. Zure desioak desleketzen banna, patologizatu edo irrigarri utziko dut".

Queer pertsonok, transfeministok eta erradikalok, ezin dugu plazeraren eta afektuaren mapa arautu. Bestela, gure ahalmen subertsiboa galduko genuke, eta borrokatzen ari garen aparatu diziplinatzailearen antza hartuko genuke.

Bisexualitatea eta desiraren forma hibrido, nahasi edo multiforme guztiak aldarrikatzea ez da mehatxua, konplexutasun sexual eta politikoaren isla baizik. Horregatik da garrantzitsua subjektibotasun politikoaren ortzi-muga marika/bollera dikotomiatik haratago amestea. ●

Itziar

LEIRE NARBAIZA
IRAKASLEA

Kointzidentzia harrigarriak daude bizitzan. Izan ere, zenbat ikusle elkartu litezke Arriaga antzokian? Zenbat komun ote daude solairu bakoitzean? Zein probabilitate dago Gipuzkoako emakume bik sartu-irtenean leku eta istant berean kointziditzeko, 35 urtean elkar ikusi barik egon ostean?

Hala aurkitu nuen Itziar aurrekoan, bera irteten, ni sartzen.

Inoiz zenbatu duzue zenbat pertsona pasatu diren gure bizitzetatik? Batzuk denbora laburrean egon dira gure ondoan, anekdota hutsa gure biografian. Beste batzuk txikitatik dauzagu alboan, eusleak dira. Badaude,

ostera, beste zenbait, gure historiako bolada konkretu batean oso inportanteak zitzaizkigunak, baina denboraren joanean, bideak bereizi eta euren pista galdu ginen.

Itziar hirugarren multzokoa da. Ikas-kideak izan ginen karreraren, mahai berean jesartzen ginen. Ni kokolatxoan nintzen, umea, bera moderno eta ausarta. Feminista konbentzitu. Bizitzeko beste modu bat dagoela ere erakutsi zidan.

Arriagan elkar besarkatu baino ez genuen egin. Eskerrak eman nahi nizkion, baina. Orduan zein garrantzitsua izan zen esateko premia nuen.

Milesker, Itziar! ●

Saturazioa



ENEKO GORRI GANTIER
EUSKARA TEKNIKARIA

Bekatu bat aitortu behar dut hemen. Duela lau urte, ohitura berri bat sarrarazi nuen nire bizian: igande gauean, kaka kanoi baten antzera "informazio" jarraikia hedatzen duen CNews telebista kate ultraeskuindarra begiratzeko hasi nintzen. Hasieran ordu erdi bat astero zena, noiztenkako zapping kaltekorra bilakatu da. Badakit: ez da biziki ohoragarria eta ahalke pixka batekin salatzen dut, baina Vincent Bolloré miliardunaren kate horrek xoraturik atxikitzen nau, okaztatzen nauen bezainbat.

CNews, beste hedabide asko bezala, eguneroko gorrotoa sortzeko fabrika da! *Talk show*-ak eta albistegiak begiratzeko hastean, ulertzen hasi nintzen nondik ateratzen ziren lankide, auzo edo soberra ezagunak ez zaizkidan pertsona batzuek errandakoak. CNews bezalako hedabideek badutelako indar bikoitz hori: agenda mediatiko eta sozialean gaiak inposatzea, eta ondorioz, "kronikarien" zeingehiagoka berbalarekin onargarriaren muga beti urrunago kokatzea. Eta berdin dio espazio mediatikoa *fake news*-ez saturatzen badute: "Bota alimaleko gezurra! Gezurztatzen badute ere, beti zerbait geldituko da" aipamena da *spin*

Saturazio eta giro okaztagarri horrek paralizatzen gaitu. Badugu diskurtso altxagarri eta ausarten beharra; badugu ere komunio funtzioa beteko duten mobilizazioen premia

doctors-en doktrina berria. Baina ez uste izan hori guzia kasualitatea denik. Gerla kultural baten baitan ongi pentsatu, antolatuta eta diruztatutako zibilizazio bataila bat ari da gertatzen!

Estatu Batuetan Steve Bannon izan den bezala, frantses estatuan Pierre-Édouard

Stérin ari da hori guzia orkestratzen. Teorizatu duten estrategiaren arabera, zonalde mediatikoa urez estali behar da, "hedabideak egunean gai batez bakarrik emozionatzen ahal direla" argudiatuta. Horrela dute gai txikiek protagonismo handia eta sakoneko gaiak doi-doia ageri.

Estrategia horren hedatzaile ezin hobeak dira, nolaz ez, Bolloré sareko hedabideak. Baina beste hedabideak horren segitzeko behartuak sentitzen balira bezala sartzen dira fandango horretan dantzari. Eskuin muturrak du tempoa markatzen. Ekainean *dry January* egin nuen bezala, martxoan frantses hedabideak kontsultatzeari utzi nion. Desintoxikatzen, telebista eta irratia itzali. Saturazioraino utzi ninduten Trump, Musk, Gaza, Marine Le Pen, austeritate plana, autoritarismoaren gorakada, gutxiengoaren kontrako erasoa... Benetan ohartzen ote gara aktualitateak gure osasun mentalean duen eraginaz?

Saturazio eta giro okaztagarri horrek paralizatzen gaitu. Badugu diskurtso altxagarri eta ausarten beharra; badugu ere komunio funtzioa beteko duten mobilizazio berrien premia. Udaberria dator: alternatibari ideki diezaiozun bidea. ●

44.
LIZARDI
SARIA

• Euskarazko gazte literatura sustatzeko.

• Lanak aurkezteko epea: 2025eko uztailaren 14a.

Informazio gehiago: www.zarautz.eus



ZARAUZKO UDALA



LIZARDI SARIA



Babeslea:  ARGIA

Itziar Ituño  Gure Zirkua

 Go!azeneko lagunak

 Tapia eta Leturia  Gozategi

Eñaut Elorrieta  Olatz Salvador

Kai Nakai  Amets Aranguren

Ines Osinaga  Aitor Gorosabel

Oinkari  Bonberenea

Erraldoiak  Dragqueenak

 Bertsolariak  La Pulga

ETA GEHIAGO!

Erosi sarrerak:
NIKEREMAITZAITUT.EUS

 maite  zaitut

FESTA

ERRALDOIA

Bizkaia Arena - BEC!

Maiatzak 3, 2025

UKRAINAKO GERRA BUKATZEAR

“EUROPARROK, GERRARAKO PREST!”

Orain Errusiak inbaditu behar ei du Europa eta horren aurrean berrarmatze basatia bultzatu behar dute Europar Batasuneko herrialdeek.

Lehen Sobietar Batasunak egin behar zion eraso, eta Gerra Hotzak ia mundua irentsi zuen. Gezurra zen ordukoa, eta gezurra da gaur egungoa, baina balio du ekonomia modu krudelenean eta arriskutsuenean sustatzeko, defentsa industriarekin; edo EBko herrialdeak eta herritarrak etsaiaren aurrean kohesionatzeko. Jokoaren erdian dago Ukrainako gerra, menia errealitate egiteko ahaleaginean.

 XABIER LETONA BITERI

Berrarmatze berri honen ardazean dagoeneko badira Ukrainako gerrako milioi bat hildako. Zifrak izan daitezke apur bat txikiagoak edo handiagoak, baina edozein kasutan ehunka mila lirateke alde bietan hildakoak eta zauritutakoak. Donald Trump AEBetako lehendakari hautatu eta azkar hasi zen su-etena bultzatzen –bere estiloan, 24 ordutan bideratu behar zuen afera–, baina asteak daramatzate hitz egiten eta aurre-rapenak urriak dira. Hala ere, herrialde biei interesatzen zaie su-etena, baita dirua jartzen duten AEBei ere, eta denak adierazten du, kostatuta, lortuko dutela. Une honetan negoziazioen egoera zein den aztertzen da ondorengo lerroetan.

“GERRA BUKATU DA”

Jeffrey Sachs ekonomialari estatubatuarren ustea da. Badu zer bait jakiteko moduko bizitzarik. Bera izan zen 1992an Errusian indarrean jarri zen liberalismo basatiaren arkitektoa, eta harrez geroztik AEBak, EB, Ukraina eta Errusiaren arteko harremanak oso gertutik jarraitu ditu, askotan bertatik bertara, aholkulari gisa. Hala zioen Europako Legebiltzarrean otsailean emandako hitzaldi batean: “Gerra bukatzen ari da. Beraz, mesedez atera ezazue burutik. Mesedez, esaiezue zuen lagunei bukatu dela”. Analista eta diplomatiko gehienak dira iritzi berekoak.

UKRAINA GALTZEN ARI DA

2022ko otsailean Errusia Ukrainan sartu zenean, “operazio militar berezia”

deitu zion inbasioari. Denbora gutxian Kiev hartzeko asmoa zuen, agintzaritza aldaketa behartu, eta bereziki, Ukraina NATO n sartzea saihestu. Ukrainak, aldiz, indartsu erantzun zuen eta, Mendebaldearen laguntza militarrekin, Errusiako indarrak atzera bota zituen, gerra batez ere Ukrainako hego-ekialdera eramanda. 2023an Ukrainak egin dako kontraerasoa oso gaizki ateratu zitzaion. 2024an, aldiz, arrakastaz hartu zuen Errusiako Kursk eremua, baina gero porrot egin du eta Errusiak hila-bete batzuetan ia osoa berreskuratu du. Errusiak gaur egun Ukrainako lurraldearen %18 bat kontrolatzen du. Balia-bide ekonomiko eta demografikoen ikuspegitik ere Errusiak Ukrainak baino askoz hobeto eutsi diezaiokete gerrari.



Sabin Howard eskultorearen *A Soldier's Journey* (Soldadua-ren bidaia) obraren zati bat.

Nazioarteko zigor ekonomikoek min handia egiten diote Errusiari, baina horien aurrean pentsatu baino hobeto erantzun du Kremlinak.

MENIAK DENBORA BEHAR DU

Saudi Arabian sinatutakoaren arabera, Ukrainak eta Errusiak adostuta dute energia azpiegiturei erasorik ez egiteko akordioa, baina ez ei da betetzen ari. Itsaso Beltzean militarri ez jarduteko ere ados jarri ziren bi aldeak, baina akordioa ez da indarrean sartu, batez ere Errusiak nekazaritza esportazioei lotutako zigor ekonomikoak altxatzeko baldintzak jarri dituelako, eta AE-Bak ados egon arren, Ukraina eta Europar Batasuna ez daude. Herrialdea odolusten duen gerra bukatzea nahi

Apurka eraikitako abantaila sendoa lortu dute errusiarrek, eta ez daude edozein akordio lortzeko prest

dute errusiarrek, baina apurka eraikitako abantaila sendoa lortu dute, eta ez daude edozein akordio lortzeko prest. Denak adierazten du negoziatorako denbora hartuko dutela eta, bake sakona baino, su-eten luze bat erdituko dela. Denbora horretan alde biek izango dute berrarmatzeko aukera.

LURRALDE GALDUAK?

Ukraina ekialdean Krimea, Donetsk, Luhansk, Kherson eta Zaporizhiako eskualdeen gehiengoa Errusiaren menpe dago. Krimea 2014an bereganatu zuen, beste biak inbasioaren aurretik Errusiako errepublika autonomo gisa onartu zituen Moskuk, eta azken biak 2022ko irailean. Ukrainako gerrako



Armada ukrainarrak gero eta arazo handiagoak ditu herritarrak gerrara eramateko.

arazorik arantzatsuena da, Errusiak be-
reak direla onartzea eskatzen du, baina
Ukrainak ez du horrelakorik onartu-
ko, eta Europar Batasunak ere ez, gaur
egun dioenez. Irtenbide gisa aipatzen
da Ipar Korea eta Hego Korearen arteko
formula, non 1953tik gaurdaino su-eten
luze batean bizi diren. Ez da bake era-
batekoa, gerra arriskua gainean da beti,
baina bake egoera dago. Formularen
arabera, lurraldeen artean mugatzat

Ukrainako lurraldeen
irtenbide gisa aipatzen
da Ipar Korea eta Hego
Korearen arteko formula,
non 1953tik gaurdaino
su-eten luze batean
bizi diren

NATO: AZKENEAN UKRAINA KANPO

2008tik ari da aztertzen NATO
Ukraina erakundean sartzea, bai-
na Errusiak beti ohartarazi du
hori akats handia litzatekeela.
Aditzera ematen denez, su-etena-
ren negoziazioetan onartuta dago
jada Ukraina ez dela NATO-n sartu-
ko. Trukean, NATOk eta bereziki
Europar Batasunak sendotasunez
jarraituko dute Ukraina militarki
hornitzen. Horretarako Kiekek hi-
tzarmenak indartuko ditu hainbat
herrialderekin, berbarako Frant-
zia, Erresuma Batua edo Alema-
niarekin. Behin su-etena erdietsi-
ta, Frantzia eta Erresuma Batua
soldaduak bidaltzeko prest daude,
baina Errusiak ez ditu onartzen,
etsaitzat hartuko lituzke. Aurretik
ere, bai 2015eko Minskeko akor-
dioetan, bai gerraren lehen astea-
tan Turkian egindako bake nego-
ziazioetan NATOrena aski garbi
zegoen. ●

hartzen ez den zatiketa bat egiten da,
eta alde batera zein bestera lur eremu
desmilitarizatu bat finkatzen da, atze-
rriko indarren zaintzapean. Askoren
ustez, Ukrainak onartuta zuen lurralde
galera maila bat –Donbass– gerra hasie-
rako negoziazioetan, baina Europak eta
AEBek ez onartzeko eskatu zioten eta
gerrara bultzatu zuten. Kherson eta Za-
porizhiako eskualdeak ere galdu zituen
ondoren.

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu

SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

ERRUSIAREKIKO GERRA HAUSPOTZEN

UKRAINAREN ONDOREN POLONIA?

Europar Batasunak Ukrainako gerra hauspotu du Kiev armaz hornituta, eta menia oraindik airean delarik, gerraren zikloan murgilduta dago bete-betean. Hori bai, bere diskurtsoa modulatzan ari da, eta gero eta gehiago hitz egiten du balizko su-etenaz. Berrarmatzea bultzatu bidean, EBko ahots esanguratsu askok diote Ukrainako gerraren ondoren Errusiak Georgia, Moldavia edo herrialde baltikoak inbadituko dituela, edo Polonia edo Errumania ere bai. Arrazoi historikoak eta Errusiarekiko hurbiltasuna medio, bistan da Europako ekialdeko eta mendebaldeko herrialdeen Errusiarekiko beldurra zeharodesberdina dela.

ERRUSIAREN ERASOA EZ DA SINESGARRIA

Hemendik hamar urtera zer gertatuko den jakiterik ez dago, baina orain, Ukrainako gerrak ekarri dizkion galera handien ondorioz, Errusia guztiz ahulduta dago zentzu guztietan. Akats estrategiko itzela eginda, Errusiak Kiev hartu nahi izan zuen 2022ko otsailean, baina atzera egin behar izan zuen, eta ekialdeko lurretan finkatu zuen frontea. Han, poliki eta sendo aurrera egitea lortu du, beti ere apur-apurka eta galera handiekin. EBk ez du berezko egitura militarrik, baina EBko herrialdeen ahalmen ekonomiko eta militarrek txiki uzten dituzte Errusiaren indarrak, salbu eta armamentu nuklearrean. Nola ausartuko da NATOk herrialde bati eraso egiten, dakienean egoera horretatik onik ateratzeko aterabide bakarra erantzun nuklearra

dela? Probokazio oso larriren bat jasan beharko luke horrelakorik gertatzeko, eta bakarrik gerta liteke AEBek segurtatuko balute haien nagusitasunak errusiarren ahalmen nuklearra neutraliza dezakeela. Ronald Reaganen garaiko misilen aurkako babes sistematik ari dira horretan, baina gerta liteke halakorik mundua arriskuan jarri barik?

NATO-ERRUSIA: TOPO EGIN DUTE

1990eko hamarkadatik ari da egiten ekialdera NATO eta, norabide horretan, azkenean ezinbestean egin du topo Errusiarekin. Europak Errusia inperiala agertu nahi du honek azken hamarkadetan izan dituen gerrak azaleratuta, hala nola Txetxenian, Georgian eta Donbasen; horietan guztietan arrazoi historiko sakonak daude, baina baita NATOren urreratzea ere. 2014an Krimea inbaditu zuenean Errusiak oso deiar serioa jo zuen, “ez segi ekialderako bidean”, baina ez zitzaion kasurik egin eta Ukrainako gerra etorri da. 2015ean Minskeko akordioak errealitate bat izan ziren, lorpen handia, baina EBk ez zuen ahalegin seriorik egin haiek egikaritzeko, bere hainbat mandatarik onartu izan duten moduan. Orain, Ukrainaren “neutraltasuna” ezinbestean egongo negoziazio mahaian.

PUTIN, HITLER BERRIA

Justifikazioak eraikitzeke, Saddam Hussein Irakeko buruzagi ohia Hitlerrerkin parekatu zuten behin eta berriro hura preso egin eta hil aurretik. Orain berdin egiten dute Vladimir Putin buruzagi errusiarrekin, eta hura

ez da inongo santu bakezalea, baina Husseinek izan zuen moduan, Putinek berak ere bi fase oso argiak ditu Mendebaldearekiko harremanean: lehenengoa, 2000tik 2014ra, Krimeako inbasioa arte; eta bigarrena, hortik eta gaur egunera arte. Lehenengoan bere Mendebalzaletasuna erakutsi zuen eta saio ugari egin zituen Errusia Europako herrialde gisa har zezaten, bat gehiago izateko; bigarrenean, lortu gabeko helburu horiek baztertu, Europan bere bakardadea onartu eta sobietar errepublika ohiak eta BRICSeko herrialdeekiko harremana ondo finkatzeari lotu zitzaion. Sergei Lavrov Errusiako atzerri ministroak hala formulatu du harremanen egoera berria: “Ezin ditugu Europar Batasuna eta Errusiaren arteko harremanak Gerra Hotzaren garaian moduan ikusi, orduan munduko arazoan muinean zeuden biak, gaur egun ez”.

GERRAK ERAIKI BEHAR DU EUROPAR BATASUNA?

Gerra giltzarri izan da Europako egungo estatu-nazioen sorreran, eta bali-teke Europar Batasunak gerra baten aitzakia behar izatea europar nortasun berri bat finkatzeko. Sorreran sei estatu zirenak gaur egun 27 dira, eta gero eta nekezagoa zaie norabide bat finkatzea. Herrialde denek dituzte antzeko arazoak, baina baita oso desberdinak ere, eta Hego-Ipar banaketa historikoari aspaldi gehitu zitzaion mendebalde-ekialde banaketa. Egoera horren aurrean, Ukrainaren aldeko jarrera eta Errusiaren aurkako berrarmatzea batasunerako akuilu gisa darabilte egun EBko agintariek.

EUROPAR BATASUNA ETA ERRUSIA

'OSTPOLITIK',
OIHARTZUN FIN HURA

Gerra Hotza bultzatu zuten politiken alboan egon ziren ere bakearen aldeko ildoak. Ez zuten Ekialdea eta Mendebaldea batzeko moduko berregituraketa politiko berririk ekarri, baina errealitate berriak josi zituzten Europako Mendebaldea eta Ekialdearen artean. Horietako esanguratsuena izan zen Alemaniako sozialdemokraziak bultzatu zuen *Ostpolitik* edo ekialdeko politika. Errusiako gasarekin, oraintsu arte iritsi zaigu haren oihartzun ñimiño bat.

 XABIER LETONA BITERI

Europarrek euren etxeetan bi aste-rako biziraupen *kit*-a osatu behar dutela irentsi ondoren, bakarrik falta zaie entzutea, sasoi baten moduan, eraso nuklearraren aurkako babes guneak eraiki behar direla han-hemenka. Lasai baina, arma lasterketa berriaren beharrak eskatu ahala, dena etorriko da. Honek guztiak, ezinbestean dakar Gerra Hotzaren oihartzuna eta, zehazki, haren bukaerarena: 1980ko hamarkadaren amaiera eta, bereziki, 1990eko hamarkadaren hasiera.

1985ean Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistako idazkari nagusi hautatu zuten Mikhail Gorbaxov giltzarri izan zen Gerra Hotzaren amaieran. 1989an Berlingo Harresia erori zen, 1990ean Alemania biak batu ziren eta 1991ren amaieran, guztiz ezustean, Sobietar Batasuna desegin zen. Testuinguru horretan guztian, Europako Ekialdeko eta Mendebaldeko indarrek negoziazio prozesu konplexua ehundu zuten Alemaniaren batasuna eta Europako Ekialdeko estatuen zabalkundea bideratzeko.

Sobietarrak banatuta zeuden gizarte komunistaren irekierari buruz, baina Gorbaxovek gidatzen zuen alderdiko sektoreak bederen argi ikusten zuen garai historiko hartan Sobietar Batasunean hiru oinarri ezinbestean garatu behar zituztela: batetik, barne mailan komunismoak egin behar zion nolabaiteko lekua merkatu ekonomiari; bestetik, Alemania bien batasuna baliatu behar zuen Europako Mendebaldeko estatuekin harreman berria finkatu eta, AEBen babesetik at, "Europako etxe batua"-ren eraikuntza bideratzeko.

Hirugarren oinarria segurtasunari lotuta zegoen: Varsoviako Ituna desegin ondoren, Sobietar Batasunak lortu behar zuen Mendebaldearen bermea NATO ekialdera ez hedatzeko. Bigarren Mundu Gerran Alemaniak Sobietar Batasuna inbaditzeak milioika sobietarren heriotza eragin zuen, eta sobietar agintarien hamarkadetako mamu handienetako bat izan zen horrelako egoera bat saihesteko baldintzen finkatzea. Horregatik, Alemania batuak mamu zaharrak pizten zituen sobietar mandatarien artean; oraingoan, gainera, ez bakarrik Alemaniagatik, bereziki AEBengatik.



Willy Brandt (eskuinean) eta Willi Stoph Ekialdeko Alemaniako buruzagiaren bilkura 1970ean.

NATO-REN HEDAPENA EUROPAN



1949	1952	1955	1982	1990	1999	2004	2009	2017	2020	2023	2024
12	+2	+1	+1	+0	+3	+7	+2	+1	+1	+1	+1

“HAZBETE BAT ERE EZ EKIALDERANTZ”

1990ean eta 1991n negoziazio sakonak izan ziren aipatu hiru oinarri horien bueltan eta egindako dozenaka bilera eta gailurretan, NATOko kideek, eta bereziki AEBek, behin eta berriz, artez eta moldez, adierazi zieten Gorbaxovi eta Eduard Xevardnadze Sobietar Batasuneko Atzerri ministroari erakunde militarra ez zela ekialderantz zabalduko. James Baker AEBetako Estatu idazkariaren esamoldea historiara pasatu da: “Hazbete bakarra ere ez da mugituko ekialderantz”. 1990eko otsailaren 9an bi buruzagi sobietarrekin izandako bilere-tan esandakoa da.

Egun batzuk lehenago Mendebaldeko Alemaniaren Atzerri ministro Hans-Dietrich Genscherrek asmo bera adierazi zuten Alemaniaren batasunari buruzko hitzaldian, Bavieran: Europako ekialdeko aldaketek eta Alemaniako batasun prozesuak ez zuten gutxietsi behar sobietarren segurtasuna, eta beraz, NATOk baztertu behar zuten ekialdera zabaltzea. Ondorengo hilabeteetan Frantzia eta Erresuma Batuko buruzagiak ildo bere-tik mintzatu ziren, izan François Mit-terrand Frantziako lehendakaria edo Mar-garet Thatcher, Erresuma Batuko lehen

ministroa. 2017an AEBek argitara eman zituzten garai hartako agiriek batzen dituzte bilera, hitzaldi eta gailurretan esandakoak, eta horietan ondo ikus dai-tezke horiek guztiak. (<http://nsarchive.gwu.edu>).

Hizketaldi horiek guztiak Alemaniaren batasuna bideratzeko *Bi gehi lau* ize-neko itunean finkatu ziren: bi Alemaniak gehi AEBak, Sobietar Batasuna, Erresu-ma Batua eta Frantzia, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo Europaren berran-tolaketa politikoa bideratu zuten indar nagusiak. 1990eko abenduan sinatu zen ituna, baina hartan ez zen idatziz ageri NATO ez zela ekialderantz zabalduko. Zergatik? Besteak beste, AEBek ez zute-lako gisa horretako sinesmenik. Alema-niak gaiaz argitara emandako garai har-tako dokumentuetan ere argi ikusten da nola Genscher Atzerri ministroak behin eta berriro adierazten dien mandatar-i ugariri NATOk ez lukeela hedatu behar ekialderantz.

GORBATXOV ENGAINATU ZUTEN


Laster hasiko ziren ikusten kontrako no-rabidean zihoazen adierazpen eta neu-rriak. Denborak argi utzi du AEBak joko bikoitzean ari zirela. Hasteko, Gensche-rrek 1990eko amaiera aldera AEBetara

egin zuten bisitan argi utzi zioten AEBak ezin zirela konprometitu etorkizunean ekialdera ez zabaltzearekin. 1991ko aza-roan NATOk gailurra egin zuten Erroman eta han ere argi zehaztu zen Varsovia-ko Itunaren desagertzeak ez zela bere helburuei eragiten, eta egoerak eskain-tzen zuela aukera berri bat segurtasuna modu zabalagoan ulertzeko. 1990eko bigarren erdialdean hasiko ziren NATO-n sartzen Europako Ekialdeko lehen he-rrialdeak: Hungaria, Polonia eta Txekiar Errepublikak 1999an; 2005ean Lituania, Letonia, Estonia, Bulgaria, Errumania, Eslovakia eta Eslovenia.

Luze eta zabal hitz egin da Alemani-a-ko Batasunaren testuinguruan Sobietar Batasunari NATO ekialderantz ez zabal-tzeko emandako bermei buruz. Askok uste dute ahozko bermeak nahikoak zi-rela, baina egia da ez zela zehatz mehatz inongo akordiotan idatzi. Vladimir Putin egungo buruzagi errusiarrak sarri gogo-rarazten du hori Gorbaxovi ziria sartu ziotela azpimarratzeko. Mary E. Sarotte historialari estatubatuarrek Mendebal-deko posizioak agertzen ditu *Not One Inch: America, Russia, and the Making of Post-Cold War Stalemate* (Hazbete bat ere ez: Amerika, Errusia eta Gerra Hotzaren ondorengoaren geldialdia)

NATO-KO HERRIALDEEN DEFENTSA GASTUA (PPG-REN %TAN):

2014-2024



% 2aren marra
NATOk aholkatzen du defentsan
BPGaren %2tik gora gastatzea.

2022an idatzitako liburuan, eta bere ondorio nagusietakoa da, hori bilera batzuetan esan bazen ere, ez zela NATOren garaiko izpirituen adierazle. Liberal eskuindarrek sarri diote ez dagoela gaia jorratzen duen berea moduko libururik.

AEBetan ere denek ez zuten ikusten egokia NATOren ekialderanzko zabalitze hori. Horietako ahotsetako bat izan zen George F. Kennan, Gerra Hotzeko amerikar administrazioaren ahots esanguratsuenetako bat. 1998an AEBetako Senatuak zabalkunde horri argi berdea eman behar zion egunetan Kennanek zera adierazi zuen *New York Times*-eko elkarrizketa batean: “Uste dut hau Gerra Hotz berri baten hasiera dela (...) Uste dut errusiarrek, gradualki, kontrako norabidean erantzungo dutela eta haien politikei eragingo diela. Akats tragikoa da. Ez zegoen horretarako inongo arrazoirik. Inor ez zen ari inor mehatxatzen”.

Edozein kasutan, eta interpretazio historikoak albo batera utzita, NATOko mapari begiratzea besterik ez dago azken hiru hamarkadetan erakundea ekialdera nola zabaldu den ikusteko, Finlandiatik hasi eta Turkiaraino.

1987 eta 1991 artean Sobietar Batasunean AEBetako enbaxadore izan zen

Jack Matlock-ek ere begirada kritikoa luzatu zion hedapenari: “Arazoaren muina ez zen izan behar NATO zabaldu ala ez, baizik eta aztertzea AEBek nola berma zezaketen Europako Erdialdeko herrialdeen independentzia eta, aldi berean, kontinentearen segurtasunaren ardura europarrengan utziko zuen segurtasun sistema baten sorrera”.

EUROPA BATUAREN AMETSA

Esaten da azken mendeetako Errusian beti egon direla bi joera handi: batetik, Europako Mendebaldeko herrialdeekin harreman sistema bat eraikiko lukeena; bestetik, eslavofiloen korrontea, errusiarren berezko bideak eraikitzearen aldekoagoa. Gerra Hotzaren amaierarekin, Mikhail Gorbaxov-ek eta Europako beste lider askok sinistu zuten blokeetatik haragoko Europa bat eraikitzea posible zela. Sobietar Batasunaren ekonomiaren egoera kaskarrak bultzatuta, Gorbaxov Europako etxe batuaren ideia aurkezten jardun zuen Europan barrena 1985etik 1991ra.

Baina Gorbaxov ez zen garai horretan bestelako Europaz amesten zuen buruzagi bakarra. Vaclav Havel Txekoslovakiako azken lehendakariak ere egin

MUNDUAN DEFENTSA GEHIEN GASTATZEN DUTEN HERRIALDEAK

(milioi eurotan, 2023ko datuak)

1. AEB	686.541
2. Txina	207.310
3. Errusia	74.451
4. India	48.853
5. Alemania	47.169
6. Australia	47.016
7. Erresuma Batua	45.279
8. Saudi Arabia	41.462
9. Frantzia	41.411
10. Hego Korea	37.946
11. Japonia	35.747
12. Italia	33.349
13. Kanada	32.719
14. Ukraina	27.040
15. Arabiako Emir. Bat.	25.266
16. Turkia	22.714
17. Israel	21.902
18. Polonia	18.621
19. Brasil	16.931
20. Taiwan	16.503
21. Herbehereak	15.751
22. Espainia	13.625

Iturria: Wikipedia / Global Firepower

zituen blokerik gabeko Europaren aldeko adierazpenak, Wojciech Jaruzelski Poloniako azken agintari komunistak ere bai, edo Lohtar de Miziere Ekialdeko Alemaniako atzerri ministroak. Mendebaldeko aldean, Charles De Gaulle buruzagi frantziarrak ere hitz egin zuen Uraletarainoko Europaz, eta behin baino gehiagotan erakutsi zuen estatubatuarrekiko distantzia. Geroago, François Mitterrand presidenteak ere hitz egin zuen segurtasun sistema berri baten eraikuntzaz, zeinetan Errusiak ere egon behar zuten: “Europa jadanik ez da izango azken mende erdia ezagutu duguna”. 1975ean sinatutako CSCEko Helsinkyko Akordioak edo 1990eko Parisko Gutunak ageri zuten egosten ari zen giro berri horren kutsurik: “Europaren banaketa eta konfrontazioaren garaia bukatu da”, zioen azken honek bere hitzaurrean.

OSTPOLITIK: ZABALDU EKIALDERA

Gaur egun, balizko Europa berriaren ikuspegi hori oihartzun fin bat besterik ez da Gerra Hotza bizi izan zutentzat, eta belaunaldi gazteagoentzat oihartzunik ere ez. Egia esan, AEBrik gabeko Mendebaldeko eta Ekialdeko Eu-

ropa berriaren errealiterik txikiena ere ez zen gauzatu, ezpada hainbaten desiotan. Baina amets horrek izan ditu hainbat hari zintzilik, izan Gorbatxoven “Europako etxe batua”, izan askoz lehenago egosi zen Alemaniako *Ostpolitik*, Alemaniako Alderdi Sozialdemokratako (SPD) buruzagi Willy Brandtek 1960ko hamarkadaren bukaeran eta 1970ekoaren hasieran indarrean jarri zuena.

Funtsean, *Ostpolitik*-ak -‘ekialdeko politika’ esan nahi du alemanez- Alemaniak Ekialdeko Europako herrialdeei begira egin beharreko zabalkunde handia bultzatu zuen. Aurrera egiteko, ordura arte indarrean egon zen Hallstein Doktrina atzean utzi zuen. Haren arabera, Alemaniako Errepublikak Federala zen Alemaniaren ordezkari bakarra, eta zehazten zuen Mendebaldeko Alemaniak ez zuela inongo lotura diplomatikorik izango Ekialdeko Alemaniarekin harremanak zituenarekin, salbu eta Sobietar Batasunarekin.

Willy Brandtek finkatu zuen *Ostpolitik* Alemaniako lehen ministro aritu zenean (1966-1976) eta biziki areagotu zuen 1969tik eta 1974ra Alemaniako kantzilerra izan zenean. *Ostpolitik*-en ondorioz akordio ugari sinatu ziren Sobietar Batasunarekin eta Ekialdeko Europako gainerako herrialdeekin, eta Alemaniako barne egoerari begira, horrek ekarri zuen bi Alemanien batasuna 1990ean. Brandt komunismoaren aurkako sutsua zen, baina, aldi berean, ezinbestekoa ikusten zuen ekialderanzko zabalkunde hori, eta funtsean, politika horren jarraitzaile izan dira Alemaniako ondorengo ia mandatari guztiak, hasi Helmut Kohl-etik eta Angela Merkeleraino. Azken honen garaian hasi zen desegiten *Ostpolitik*, hainbat faktoreren ondorioz, eta nagusiki Errusiak 2014an Krimea inbaditu ondoren.

GASAK LOTUTAKO HARREMANA

Alemania bien baturak herrialdearen hazkunde ekonomiko itzela ekarri zuen eta lokomotora germaniarra zitzu bizian sartu zen XXI. mendeko Europar Batasunaren ekonomiaren buruan. Errusiarekin eraikitako harremana klabea izan zen horretan, hamarkadetan Alemaniak hango gas merkea erabili baitzuen ekonomiaren erregai moduan. Bi herrialdeak batu izan dituzten Nord Stream1 eta Nord Stream2 gas hodiak izan dira harreman zabal horren zilborresteak. 2022ko irailaren 23an sabotaje batean bi hodiak lehertu zituzten.

Lehena 2011n jarri zen indarrean eta bigarrena eraikita zegoen, baina mar txan abiatu barik.

Pulitzer kazetaritza saria duen Seymour Hersh kazetari estatubatuarren salaketaren arabera, AEBetako armadak egin zuen sabotajea. 2023ko irailean argitara emandako erreportaje luzean azaldu zituen auziaren nondik norakoak. Sabotajea gertatu eta gutxira gaiaz galde-tu zioten Antony Bynken AEBetako Estatu idazkariari eta horrela erantzun zuen hark: “Aukera aparta da Errusiarekiko menpekotasun energetikoa amaitzeko, eta beraz, Vladimir Putini bere asmo inperialetan aurrera egiteko energiaren arma kentzeko. Hori oso garrantzitsua da eta aukera estrategiko asko zabaltzen ditu datozen urteetarako”.

AEBek inoiz ez dituzte gogo handiz ikusi ez Europar Batasuna indartzeko Alemaniak eta Frantziak emandako urratsak, ezta Alemaniaren eta Errusiaren arteko harreman ekonomiko sakonak. Errusiako gasak bereziki berotu izan du Alemaniako ekonomia, baina baita mendebaldeko beste estatu batzuetakoa ere. Hershek idatzitako artikulua luze hartan esaten denez, Errusiak hainbat urteetan hornitu izan zuen bere aurrekontuaren ia erdia gasa eta petrolioaren salmentarekin.

Funtsean, horrek indartzen zuen Errusia eta EBko herrialdeen harremana, baina gainera, Putinen gas merkea erosiz gero, EBko herrialdeek ez zuten erosiko AEBetako gas likidoa, Errusiakoa baino arras garestiagoa. Norbait, beraz, lehertu zituen Nord Stream hodiak eta kito. AEBetatik saiatu dira gas hodiaren sabotaje horiek Ukrainari bizkarreratzen, baina oraingoz inork ez du Hersh-ek beste azalpen sinesgarri eman. Bere lehenengo agintaldian (2017-2021), Donald Trumpek agertu zituen Europarekiko harremanak aldatzeko lehen zantzu batzuk. Bigarren honetan desio haiek gauzatzen hasi bide da apurka, nahiz eta oraindik inork ez dakien Ekialdeko Urruna jo puntuan duen begirada berria zertan zehaztuko den. Ezin da ahaztu Trump Europar egiten ari den guztia, bertan diru gutxiago jartzeko saioa dela, indarrak egiazko etsaiaren aurrean jartzeko: Txinaren aurrean.

“BILATU ERRUSIAREN BAZKIDETZA”

Hori da Jeffrey Sachs ekonomialari estatubatuarrek Europako Legebiltzarrean

EBko agintariei otsailean aholkatu berri diena. Sachs Sobietar Batasuna desegin ondoren Errusian egin zen “txoke terapia”-ren arkitektoa izan ei zen eta harrezkero maiz ibili da Errusian eta Ukrainan, sarri aholkulari lanetan. Bere hitzaldi luzea bolo-bolo ibili da hainbat hedabide eta sare-sozialetan, eta hartan adierazten du Errusiak eta EBko ekonomia osagarriak dituztela eta gerra baino era guztietako lankidetzara bultzatu beharko luketela, AEBen gerizpetik at bestelako Europa eraikitzeko.

“Ez zaitezte joan Washingtonera eskale gisa -amaitu zuen Sachs-ek-. Horrek ez dizue lagunduko. Areago, seguru enik haren krudelkeria akuilatuko du. (...) Mesedez, izan ezazue zuen atzerri politika. Luzaro bizi behar duzue Errusiaren ondoan, beraz negoziatzea ezazue harekin. Segurtasunari dagokionez, egiazko arazoak dituzue, bai Europak bai Errusiak, baina handikeriak eta Errusia fobiak ez dizuete horiek konpontzen lagunduko, ezta Ukrainaren segurtasunari ere. AEBek ekin zioten abentura horri [Ukrainako gerra], orain zuek zaretze gerraren animatzaile sutsuenak, eta gerrak dagoeneko milioi bat biktima ukrainar sortu ditu”. ●



Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK
Neurri handiko piezen mekanizazioan espezialistak

LRQA CERTIFIED AS 9100
ISO 14001
LRQA CERTIFIED ISO 9001

Eziago industrialdea 21, HERNANI
943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.es
www.talleresmitxelena.es

“ ”

Gure herriak besteak bezalakoak dira, eta ez dugu museo batean egon nahi

Carli Pup

Carli Pup (Udine -friuleraz Udin-, 1973) Friuli [friuleraz, Friûl] herriaren ekintzaile kultural garrantzitsuenetako bat da. Bere hizkuntza gutxituaren idazle, hizkuntzalari eta bere herriaren historialari bihurtu da. Gaur egun, Informazione Friulana kooperatibako presidentea da, zeina besteak beste, Onde Furlane irratiaz eta Festival Suns Europe jaialdiaren antolaketaz arduratzen den.

 CIRA CRESPO  LUCA CHIANDONI

Europako kultura gutxituen egoera zuzenean ezagutzeko aukera eman dio bere jarduera profesional eta militanteak, eta gai horiei buruz gurean ere kontuan hartu beharreko ikuspuntua du. Bere herriko, Italiako eta Europako kultura gutxituei buruzko hausnarketa patxadatsu eta ondo neurtua eskaini digu.

Lehenengo eta behin, proposatu nahi dizut Friuli herria kokatzen lagun diezaguzun.

Bada, begira, geografikoki, Mediterraneoaren iparraldean eta Alpeen hegoaldean gaude, eta Europa ekialdeko alderdirik mendebaldekoena gara, edo, bestela esanda, mendebaldeko ekialdekoena... Mugako herrialde sentitu izan gara beti. Politikoki, herrialdearen mendebaldeko zatia 1866tik da Italiarena, eta ekialdeko zatia, berriz, Lehen Mundu Gerraz gero, 1918tik, alegia.

Esango nuke ideia orokorra dela Italiako estatuaren formazioa nahiko prozesu boluntarioa izan zela.

Benoa, gure kasuan, 1866an, Italiarekiko anexiorako erreferendum bat egin zuten, bai... baina esango nuke kontsulta ez zela oso demokratikoa izan: botoa plazan ematen zen, ordena-indarrek zaindutako hautetsontzietan. Bi hautetsontzi zeuden, bata baietzarentzat eta bestea ezetzarentzat. Laburbilduz, Italiaren bateratze-prozesua, esaten dutenetik pixka bat desberdina izan zen gurea.

Gure muga-herri egoerak baldintzatu egin gaitu. 1970eko hamarkadara arte, Friuli lurraldearen zati handi bat juridikzio militarren pean zegoen. Kuartelak zeuden herri bakoitzean. Hemen ere eskuin muturreko talde paramilitarrak sortu ziren. Komunismoaren aurkako sarea, baina eskualdeko 'separatistak' kontrolatzeko lana ere bazuten. Anti-ko-

munista zen, eta anti-esloveniarrak, batik batik -eskualean Esloveniako minoria bat ere bizi da-.

Zu kontestu hartan jaio zinen, orduan. Kontatu pixka bat zein den zure biografia, baita hizkuntzari dagokionez ere.

Udinen jaio nintzen 1973ko uztailearen 12an. Han jaio nintzen gertuen dagoen ospitalea dagoelako, baina erditu ondoren egun gutxi horiez gain, beti bizi izan nintzen Borc dai Pupsen. *Borc* delakoa Friuliko ohiko etxebizitza multzoa da; etxe-multzo trinko batek osatzen du, muino eta mendietan kokaturikoak; nolabait ere, baserri baten eta herri baten tarteko zerbait. Bada, ni, Sarsêt herrian, Martignà udalerrian, jaio nintzen, eta bertan, nire familiaren *borc* berean bizi gara, gutxienez XV. mendearen amaieratik. Friuleraz hitz egiten zen inguru



batean hazi nintzen, bai familian, bai herrialdean.

Hala ere, joan den mendeko 70eko hamarkadan Friulin jaio ziren askori gertatu zitzaien bezala, niri ere antzera gertatu zitzaidan: eskolan italieraz soilik aritzeaz gain, friulieraz aritzen ziren familiak beren seme-alabekin italieraz hitz egiten hasi ziren, hizkuntza-ohitura "txarrak" har ez zitzaten. Horregatik, urte batzuetan, txikitan, familian italieraz hitz egin zuten nirekin, italieraz ongi hitz egiten nuela ikusi zuten arte. Ondoren, friulieraz hitz egiten hasi zitzaizkidan berriro. Hazi nintzenean, egoera horri buruz arrazoitzen hasi nintzenean, friuleraren aldeko aktibista bihurtzea erabaki nuen; eta gaur egun ere, hala eta guztiz ere, ama eta arrebeekin askotan hitz egiten dut italieraz.

“ ”

Itxaropen handiko pare bat une izan dira nazionalitate gutxientzat: Eskoziaren eta Kataluniaren independentziari buruzko galdeketak

Ulertzen dut zure kasuan gai horri buruzko kontzientzia hartzea eta ikastea egon dela. Zein izan da zure biografia zentzu horretan?

Batez ere eskola ertainetik aurrera hasi nintzen pentsatzen (nahiz eta nire egoera beste askorena bezalakoa izan), ez zela normala, ezta bidezkoa ere. Friuliren historiari buruzko liburuak irakurtzen hasi nintzen eta gauza batzuk ulertzen lagundu zidaten. Baina ez zen prozesu lineala izan, urteak behar izan ditut puntuak lotzeko. Bide bihurri horretan sartu ziren, adibidez, Ipar Irlandatik eta Euskal Herritik zetozen prentsako albisteak. 8 urte besterik ez nituen hil zenean, baina Bobby Sandsen istorioak zirrara handia eragin zidan, nahiz eta une hartan ez nuen guztiz ulertzen. Ez da kasualitatea argitaratu nuen lehen liburua gose-greban idatzi zuen egunkaria izatea, friulerara itzulia.

Esango zenuke bizitza eta lana zure herriaren alde eman dituzula?

Bai, esan daiteke nire bizitza horretan eman dudala, herriaren alde. Unibertsitatean hizkuntza eta identitate friuliarra sustatzen zuen ikasle-talde batekin bat egin nuen. Gero, 1990eko hamarkadaren erdialdean, nagusiki friuleraz transmititzen duen Radio Onde Furlane komunitariora hurbildu nintzen. Irratiaz arduratzen den kooperatibako kideok antolatzen dugu, besteak beste, Suns Europe jaialdia.

Suns Europe jaialdia Europako estaturik gabeko nazioentzako gertakari kultural garrantzitsuenetako bat izango da ziur asko.

Hasiera batean musika-lehiaketa gisa egin zen, baina 2015etik aurrera beste kultur adierazpen batzuk sartu dira. Gure helburua Europako kultura gutxituetan egiten dena ezagutaraztea da, baina ez hori bakarrik, gune hau topagune ere izatea nahi dugu, Europako herri minorizatuen sare bat sortu nahi dugu. Aniztasun kultural eta politikoko hori partekatu. Saiatzen gara, bestalde, folklore emanaldien jaialdia izan ez dadin, horri uko egin gabe, baina argi utzi nahi dugu gure herriak besteak bezalako herriak direla, eta ez dugula museo batean egon nahi. Identitatea plurala da, eta ez monolitikoa.

Europako estaturik gabeko nazioen kokapenari buruz duzun iritzia kontatzea gustatuko litzaidake. Nola ikusten duzu nazio gutxituen egoera Europako Batasunean?

Zoritxarrez, Europako Batasunak estatuko gobernuen adierazpen (eta menpeko) izaten jarraitzen du. Hasieran imajinatu zuten herri libreen federazioaren ideiatik oso urrun dago, eta uste dut oso zaila dela –agian ezinezkoa– aldatzea. Esango nuke mendearen lehen laurden honetan, itxaropen handiko pare bat une izan direla gutxienez nazionalitate gutxituentzat: Eskoziaren eta Kataluniaren independentziari buruzko galdeketez ari naiz. Herri bakar baten arrakasta funtsezkoa da besteentzat: bide bat adierazten du, konfiantza ematen du, posible dela erakusten du.

Zer izan zen zuentzat Kataluniako prozesu independentista?

Procés-a arretaz jarraitzen saiatu naiz 2012tik, gaur arte. Adibidez, 2017ko urriaren 1ean Bartzelonan izan nintzen,

“ ”

[Euskara] da hiztunen galera alderantzikatzea lortu duen kasu bakanetakoa European. Ez da gutxi!

“ ”

Eskuina eta ezkerra, Italiaren ideia arriskuan jartzen duen zerbait dagoenean, nazionalista italiar garbiak dira

hauteskunde-zentro gisa erabilitako eskola batean. Egun haietan, Katalunian beste komunitate minorizatu batzuetatik joandako militante asko zeuden. Denok geunden han gure ekarpena egiteko –gutxienekoa izan arren–, eta ez bakarrik elkartasun espirituagatik, baizik eta uste genuelako Kataluniak benetan independentziaren bideari ekitea lortzen bazuen aurrekari bat egongo zela, estatuen eta Europako Batasunaren immobilismo politikoa eta instituzionala hausteko ekintza bat. Tabua hautsiko zen. Baina, tira, badakigu nola joan ziren gauzak.

Bai, badakigu. Orduan, neurri batean, esan dezakegu Katalunia erreferente bat izan dela estatu gabeko komunitateentzat. Eta Euskal Herria?

Bai horixe. Baina une desberdinetan eta arrazoi ezberdinengatik.

Uste dut euskal herri-mugimendua, batez ere joan den mendearen bigarren erdian, erreferentzia-puntua izan zela Europako estaturik gabeko nazio gutxiengentzat. Berezi 1970eko hamarkadan, nazioarteko ezker iraultzailearentzat ere erreferentzia garrantzitsua izan zela uste dut, baita herri minorizatu ei lotuta ez zegoenarentzat ere. Geroago, euskaldunak, adibidez, beren hizkuntza berreskuratzeko arrakasta-eredu baten ordezkari izan dira. Sistema gutziek di-

tuzte akatsak, baina hiztunen kopuruak, batez ere gazteenen artean, gora egin du. Hiztunen galera alderantzikatzea lortu den kasu bakanetakoa da European. Ez da gutxi!

Kataluniaren egoera desberdina da, eta, zenbait alderditan, anomalia bat da. Gainerako Herrialde Katalanak alde batera utzita ere, hainbat estatuk baino ekonomia eta populazio handiagoa –baita hizkuntzari dagokionez ere– duen lurraldeaz ari gara. Askok aspalditik dute erreferentziazat, baina, egia esan, zaila da maiz milioi-milioi eta erdi biztanlera ere iristen ez diren komunitateekin konparazioak egitea.

Beste aldetik, nire ustez, Kataluniako kasuak sistemaren muga guztiak erakusten ditu. Espainiako Gobernuak eta gainerako erakunde zentralak autonomia-estatutuaren erreforma-prozesuari ekiteko izan duten harrokeriak erakutsi zuen beste aldean zentralistak, txobinistak, faxistak baldin badaude, alferrik direla sen ona eta arrazoa. Ez dute ezertarako balio. Kasu horretan, negoziazioak ez du aurrerapenik bermatzen, baina atzerapausoak ekar ditzake.

Eta hizkuntzei dagokionez? Badirudi Irlandan hizkuntza berpizteko saiakerak daudela. Orokortua dela uste duzu jarrera hori?

Ez. Egoera nahiko ezberdinak daudela uste dut. Komunitate batzuetan gauza asko mugitzen ari dira, eta beste batzuetan egoera estatikoa dela esango genuke, edo, are gehiago, nolabaiteko atzerakada dago. Britainian, adibidez. Hiztun eta kultur ekoizpen asko galtzen ari dira. Bretoierazko liburu eta kultur produktueterako kooperatiba nagusiak itxi egin behar izan du, edo, gutxienez, bere jarduerak asko mugatu ditu.

Eta Italian? Nolako da kultura gutxituen egoera? Existitzen da, adibidez, nazio ezberdin bat izateko kontzientzia?

Beste estatu batean gehiago bat duten edo estatu baten erreferentziazko komunitatea osatzen duten populazio txikiak alde batera utzita, Italiako Estatuaren barruan hiru dira –nire ustez, baina ez naiz horrela pentsatzen duen bakarra– estaturik gabeko naziotzat hartzeko ezaugarriak dituztenak: Sardinia, Ladinia eta Friuli.

Ezaugarri espezifikoak eta desberdinak dituzten arren, gaur egun hizkuntza-kontzientzia nahiko sendoa duten



komunitateak dira, baina gutxi batzuen ondarea baino ez da nazio-kontzientzia. Erakundeek, komunikabideek eta hezkuntza sistemak mende eta erdi baino gehiagoz landutako 'garunaren garbiketa' eta gero naturala da... 'Beste' bat izatearen ideiak hor jarraitzen du, baina ezkutuko zerbait da, eta zaila da horrela identifikatzea.

Friuldarrok, adibidez, sentsazio hori barneratuta dugu. Muga gara, barbaroen aurka aritu gara. Barbaroak alemanak izan ziren, eta gero eslaviar herriak. Friuldarrek Italia 'desberdin' gisa ulertu izan dira, mugako italiarrak, menditarrek, germaniar edo eslaviar basatien aurkako mugako gotorlekua. Basakeriaren aurkako gotorlekua. Eta azkenean, guk sinetsi egin dugu, eta ez gara konturatzen gu garela barbaroak, gu garela 'besteak'.

Nola azaltzen duzu eskuin muturra Italiako boterera iristea?

Beno, asko laburbilduz, Italian, ezkerreko eremu politikoak oso gutxi du ezkerretik.

“ ”

Uste dut mundua hobe delako nire kultura [friuldarren kultura] hor badago

“ ”

Ez gara konturatzen gu garela barbaroak, gu garela 'besteak'

Orduan, zure ustez, ezkerrek ez du lana ondo egin. Zein izan da bere egitekoa, adibidez, Italiako kultura gutxituekin?

Uste dut esan dezakegula Italiako ezkerrean sentsibilitate handiagoa dutela hizkuntzei dagokionez eta gai horien in-

guruan, baina ez dute gai horietan sakontzen. Azken finean, Italiako ezkerreko nazionalista italiarra da. Ezkertiarrek "Italiako Errepublika" eta "Italiako herrietarrak" esango dute; eskuindarrek, aldiz, "nazio italiarra". Nazionalismoaren adierazpen diferenteak dira, bata autoritarioa eta ideologikoa, eta bestea, berriz, nazionalismo hutsalagoa. Baina, eskuina eta ezkerreko Italiaren ideia arriskuan jartzen duen zerbait dagoenean, nazionalista italiar garbiak dira.

Zergatik da garrantzitsua kultura eta nazio gutxituen alde lan egitea?

Friuli nire erreferentzia da, nire familiaren historia da. Ez dakit horrek munduari lagunduko dion, uste dut mundua hobe delako nire kultura hor badago, baina nolana den ere, ni friuldarra naiz, horixe naiz. Nire identitatea erresistentziaren historia bat ere bada, ni baino lehen hemen bizi izan diren belaunaldi guztiena. Erresistentzia horri esker nago hemen. Horiek zaintzen laguntzea, borroka hau, nolabait, beraiekin dudanzorra ordaintzea ere bada. ●

BIRZIKLAPENA

Pilotako esparatrapu hondakinetatik papera

Lehengai anitzekin papera egitea dute urteroko erronka Tolosako Lanbide Heziketako Paper Eskolako ikasleek: platano azalekin, orburuekin, lastoarekin, iratzearekin nahiz bakero zaharrek egin dituzte probak azken urteotan. Aurtengoan, pilota eskoletan kiloka pilatzen den hondakin bat erabili dute: esparatrapua.

 GARAZI ZABALETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Tolosako Paper Eskolan bildu gara Iker Urmenetarekin. Pilotaria da, Lanbide Heziketako irakaslea, eta proiektuaren bultzatzaileetako bat: “Partidetan eta entrenamenduetan esparatrapu asko botatzen zela ikusten nuen, eta beti izan dut kezka hori bueltaka”, kontatu du. Hondakin horri beste bizitza bat ematea posible zela sinetsita, erronka bota zien ikasturte hasieran ikasleei: zergatik ez saiatu esparatrapuarekin papera egiten? Horrela ekin zioten Kimika Industrialeko 1. mailako ikasleek lanari. Haiek egindako proba eta prozesuaren ondotik lortutako emaitzak hobetzeko eta esparatraputik ateratako papera perfektionatzeko lanean aritu dira 2. mailako ikasleak.

PILOTAN ESPARATRAPU MENDIAK

Pilotarietarako ederki dakite zenbat zabor sortzen den eskuak babesteko erabiltzen duten materialetik. “Esparatrapua eta takoak erabiltzen ditugu eskuak babesteko, eta itsasteko kola berde bat ere bai. Takoaren zati bat berriz erabiltzen da batzuetan, baina esparatrapua ez”, dio Urmenetak. Ikasleek ikerketa txiki bat egin zuten probekin hasi baino lehen, esparatrapuarekin papera aurretik egin ote den argitzeko, eta ez dute

inon topatu. Badirudi, beraz, Paper Eskolako proiektua aitzindaria dela.

Hondakinak biltzeko hainbat pilota eskolarekin jarri ziren harremanetan, eta hiruk hartu dute parte egitasmoan: Errenteriako Eplek, Villabonako Behar Zanak eta Añorgako pilota eskolak. “Proiektuak aurrera egiten badu, pilota eskola gehiagorekin harremanetan jartzea da asmoa, lehengai gehiago eskuratu ahal izateko”, gehitu du irakasleak. Izan ere, lehen probetarako esparatrapu gutxi erabili dute, kilo pare bat guztira. “Pisu gutxi izan arren, bolumen handia hartzen du lehengaiak, eta proiektuaren hasierako helburua papera egin ote zitekeen probatzea zenez, ez dugu gehiago behar izan”, dio.

EMAITZA ONAK

Makina eta tramankuluz betetako ikasgelara sartu gara: ikasle talde bat zuntz anitzekin probak egiten ari den bitartean, 1. mailako ikaslea den Ioar Tolosak azaldu digu nola izan den esparatraputik papera egiteko prozesua. Probak eginda eta akatsetatik ikasi dute, gustuko emaitza lortu arte: “Esparatrapua biguntzeko egostea pentsatu genuen hasieran. Bost bat orduz eduki genuen egosten, eta desintegratzeko gailutik pasatu genuen


ondoren. Zuntzak askatzea beharrezko da papera egiteko eta hori lortu genuen, baina esparatrapua itsasteko erabiltzen den kola bereiztea ez”.

Kolaren arazoari aurre egiteko, bigarren proba bat egin zuten, sosa kaustikoarekin. “Sosa denbora dezente utzi genituen esparatrapuak, eta digestio-gailuan sartu genituen gero, bi orduz 160°C-tan. Modu horretan kola guztia ez, baina gehiena kentzen zela ikusi genuen, eta esparatrapuaren haragi kolore hori ere galtzen zuen”, dio.

Prozesu horretatik lortutako masa desintegratzea da hurrengo pausoa. “Desintegratzeko gailuan ongi txikitu zen dena, baina zuntz oso luzea gelditzen zen, eta horiekin ezin da papera egin”, azaldu du Tolosak. Beraz, zuntzak sailkatzeko beste makina batetik pasatzea pentsatu zuten: zuntz onak, motzagoak direnak, behera erortzen dira makina horretan, eta luzeenak, berriz, goian gelditzen dira. “Behin zuntz motzak bereizita, horiekin pasta egiten da, eta hortik papera”, bukatu du.

PILOTAREN ZIRKULUA ITXIZ

Paper Eskolako proiektuaren helburua esparatrapu hondakinekin papera egin daitekeela frogatzea zen, eta



Esparatraputik papera egiteko prozesua. Argazki honetan, Iker Urmeneta.



emaitzek erakutsi dute baietz, posible dela. “Ikusi dugu egingarria dela, eta lortutako paperak erresistentzia minimo bat ere baduela”, gehitu du Urmenetak. Esparatrapua pilota eskoletatik lortu dutenez, probetatik ekoitzi duten papera eskola horiei bueltan ematea eta zirkulua ixtea da orain asmoa. “Gipuzkoako Pilota Federazioak 100 urte bete dituela-eta, logo berria egin du, eta logo hori gure paperetan serigrafiazeko saiakera egin dugu”, azaldu du irakasleak. Modu horretan, ekoiztutako papera inprimagarria dela ere ikusi dute, paper batentzat ezaugarri garrantzitsua dena.

Serigrafiak ongi atera direla ikusita, lagin gehiago egin nahi dituzte, etorkizunean, Gipuzkoako pilota txapelketetan, serigrafiatutako paper berezi hori koadroan sartuta sari gisa emateko. Horrela, pilotarien eskuetatik pasatako esparatrapuak pilotariei bueltatuko litzaizkieke, zirkulua itxiz.

ESKALA TXIKIAN EGINGARRIA, MODU INDUSTRIALAGOAN?

Eskala txikian, makina txikiekin lortutako emaitza onak ikusita, galdera hau sortu zaie orain: prozesu hau egingarria ote da eskala industrialagoan? Urmeneta: “Beheko solairuan badugu kantitate

handiagoetarako makina bat. Hurrengo erronka izango da probak hor egitea. Agian %100 esparatrapuarekin ez, baina portzentai zehatz batean esparatrapu hondakinak sartuta izan daiteke egingarria eskala industrialagoan”.

Lortu duten paperaren ezaugarriak kualitatiboki aztertzeo frogak egitea da beste lan bat. Horretarako, paper industriarekin harremana duen Tolosako Lab-Paper laborategiarekin hitz egin dute: “Paperaren ezaugarrien arabera, erabileraz zehatzak izan ditzake”, azaldu du Urmenetak. Eskolan argi dute proiektuak segida izanen duela hurrengo urteetan: “Frogak egiten jarraituko dugu”. ●



Ainhoa Jungitu

“Niretzat klabea izan da familiak eta inguruak ez tratatzea gaixo moduan”

Indartsua, irribarretsua eta oso langilea. Helburu pila bat ditu esku artean, eta ideia bat okurritzen zaionean buru-belarri aritzen da horretan. Horiek dira Ainhoa Jungitu (Orduña, Bizkaia, 1998) deskribatzen duten zenbait ezaugarri. 2023an esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten. Bi lagunekin ‘Eskerrak ahulak garen’ proiektua sortu du, ikusgaitasuna emateko eta ikerketarako dirua biltzeko.

  OLAIA L. GARAIALDE

Esklerosi anizkoitza nerbio sistemako gaixotasun bat da. Ikerlariak diotenez, immunitate sistemaren zelulek neuronei eraso egiten diete. “Mila aurpegi gaixotasuna” deitzen diote. Jungituk nabarmendu du “nahiko ezezaguna” dela, eta hasieran ez zekiela ongi zer zen. Pandemiaren ostean izan zuen Jungituk esklerosi anizkoitzaren lehenengo agerraldia: “Esnatu nintzenez aurpegi erdia lokartuta neukan”. Hogei egunez izan zituen sintomak.

Hasieran, medikuek uste zuten doluarekin zerikusia zuela, pandemia baino lehen bere ama zendu zelako: “Oso kolpe latza izan zen, ama nire erreferentea eta bidelaguna zelako. Bat-batean 20 urterekin amarik gabe geratzea oso gogorra izan zen”. Hori dela-eta, medikuek antsietatearekin eta estresarekin lotu zuten agerraldia, baina ez zegoenez ados emaitzarekin, erresonantzia bat eskatu zuen pribatu-

“Amak esan zidan behin baino ez garela bizi; nire bizitzako lelo bihurtu dut”

tuan. Burmuinean hiru orban zituela eta esklerosi anizkoitzaren seinale zirela zioten emaitzek: “Negarrez hasi nintzen, AEArekin [alboko esklerosi amiotrofikoa] nahastan nuelako eta hilko nintzela pentsatu nuelako”.

Agerraldia izan zuenetik diagnostikoa jaso arte hiru urte ibili da probak egiten. Han eta hemen informazioa bilatu ostean, diagnostikoa jasotzerako bazekien gutxi gorabehera zer zen eta zer-nolako ondorioak zituen: “Diagnostikoa eman zidatenean, etxeko lanak eginda nituen eta banekien egunerokoak egiten jarraituko nuela, ez

nintzela hilko. Tira, hil bai, baina gainerakoak bezala. Horrek lagundu zidan gehiago toleratzen”.

Gaixotasunak ez dauka tratamendurik, eta pertsona batetik bestera asko aldatu daitezke sintomak. Jungituren kasuan, lehenengo agerraldia izan zuenetik ez du beste sintomarik sumatu. Tratamendu bat hartzen du gaixotasunaren garapena kontrolatzeko eta moteltzeko: “Baina hau ez da amaituko, beti biziko naiz esklerosi anizkoitzarekin”. Momentuz kontent da tratamenduen eraginkortasunarekin: “Soilik sumatzen ditut medikazioak eragindako beroaldiak eta gorritzen naizela”.

Familian ez du aurrekaririk, eta ez du jende asko ezagutzen esklerosi anizkoitza duena. Hala ere, diagnostikoa jaso zuenean, esklerosi anizkoitza duen Orduñako neska batekin mintzatu zen: “Asko lagundu zidan ikusteak neska honek bizitza normala egiten zuela”. Gaineratu du “normaltasunez”



JUNGITUK UTZIA

bizi dela, nahiz eta momentu batzuetan zenbait beldur piztu. Nabarmendu du, batez ere, zailena ziurgabetasuna dela: “Ez dakit bihar zer gertatuko zaidan, ohetik altxatzeko gai izanen naizen edo ikusmena edo entzumena galduko dudan”. Horrekin batera, gaixotasuna duenetik bizitza “intentsitate handiagoz” bizi duela dio: “Amak esan zidan behin baino ez garela bizi; nire bizitzako lelo bihurtu dut”.

KOLEKTIBIZATZEKO BEHARRA

Idea bat okurrizten edo proposatzen diotenean buru-belarri inplikatzeko da, eta horren emaitza izan da unibertsitatean ezagutu zituen bi lagun minekin batera sortu duen *Eskerrak ahulak garen* proiektua: “Naroarekin bidai bat egin nuen, eta proposatu zidan zerbait egitea jendearekin laguntzeko eta ikusgaitasuna emateko. Mireni kontatu genion eta dudarik gabe, bera ere batu egin zen”. Horretarako Instagramen @eskerrakahulak.garen kontua sortu

dute. Asmoa da ikusgaitasuna ematea eta ikerketarako dirua biltzea: “Proiektu txikia gara, baina aldi berean hazten ari gara”. Horretarako, tote poltsak, kotoizko kamisetak, kamiseta teknikoak eta sudaderak saltzen dituzte.

Ingurukoekin gaiak hitz egin arren, proiektua sortzea publikoki azaleratzeko modu bat izan da Jungiturentzat. Proiektuari esker jende asko hurbildu zaie esanez esklerosi anizkoitza diagnostikatu dietela edota familiako kide edo lagun batek duela eta ez dakitela nola hurbildu: “Niretzat klabea izan da familiak eta inguruak ez tratatzea gaixo moduan, eta ez esatea gixajoa naizela eta ezin dudala gauza bat edo beste egin. Egin dezaket eta egin behar dut. Etorkizunean erreferente izan nahiko nuke eta jendearekin lagundu”. Nabarmendu du familia eta inguruko jendea zaintzea garrantzitsua dela: “Askotan guri buruz hitz egiten da, baina ez da aipatzen zein gogorra den ezjakintasuna ingurukoentzat”. ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Begiak. Ez ditut aukeratzen politikak direlako. Aukeratzen ditut begien bidez gure inguru guztia ikusten dugulako. Irudimena izan dezakegu, baina begiekin xehetasunetan jartzen dugu arreta. Nik ikusteko beharra daukat".

PRAKTIKAK



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Ezkerretik eskuinera, Lander Gonzalez, Eneko Imaz eta Unai Lomana, ARGIAN praktiketan ari den hirukotea.

Etorkizunerako ateak ireki nahian

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Hiru lagun. Hiru ikasketa. Hiru praktikaldi. ARGIAko erredakzioan egin dut topo Eneko, Unai eta Landerrekin. Kazetaritza eta maketazio-diseinuan praktikak egiten ari dira, bakoitza bere arloan, eta galdera batzuk egitera gerturatu naiz, ohikoa dugun moduan irakurleari sinadura berriak aurkezteko. Oso ibilbide desberdina eginda iritsi dira Lasarte-Oriara eta polita izan da elkarrizketa.

Diseinu grafikoko goi mailako ikasketak eginda, Lander Gonzalezi ARGIAN praktikak egitea “egokitu” zaio. Egokitu, diot, halaxe aitortu digulako berak; baina zein ederra den entzutea, aurretik akaso ARGIAN interes berezirik izango ez zuen norbaiti: “Nik ez nituen praktikak aukeratu, baina ikusita ze giro dagoen, nola lan egiten den eta zer egiten den, zalantzarik gabe aukeratuko nuke ARGIAN lan egitea”. Diseinatzaile lane-

tan ari da Gonzalez eta “interesgarri” zaio aldizkari baten prozesu osoa nola egin eta maketatzen den ezagutzea.


Eneko Imaz Galparsorok, kontrara, Kazetaritzako graduari sartu zenetik, azpimarratu digu, “banekien ARGIAN praktikak egin nahi nituela; asko jarraitzen dudana hedabidea da, ezagunak ere badi-tut lehenago bertan arituak eta denek animatu naute”. Unibertsitateko ikasketetan hasi aurretik ere bere aldetik idazten zuela esan digu eta “azken aldira nazioarteari begira” dagoela, interesa pizten dion gaia dela geopolitika eta “gustura” dagoela, beste gai askoren artean ARGIAN ematen diotelako nazioarteaz idazteko aukera. Lehenago *Berrria* egunkarian ere praktiketan aritua, datorren urtean ikasketak bukatuta “lan mundura jauzi egiteko prestatzen” ari dela azaldu du.

Zientzia politikoetako eta kudeaketa publikoko graduako ikaslea da Unai Lo-

mana Uribe Zubia eta lehen aldiz murgildu da kazetaritzan. “Ez nekien zer topatuko nuen erredakzioan eta sentsazio ona jaso dut, lan-giro ona, talde txikia, gertukoa... Askok erakartzen nau, gainera, botere egituretatik kanpo eraikitako hedabide bat izateak”, azaldu digu eibartarrak.

Kazetaritza ofizioa ikasteko aprobe-txatzen ari dira praktikaldia hiru lagunak. Albisteen erredakzioan ari diren biak lana klaseekin uztartu beharrean dabilta eta beraiek eskatuta, astean bitan joaten dira Lasarteko egoitzara, praktiken bigarren zatia etxetik eginez. Diseinu-lanetan ari denak egunero bertara joateko hautua egin du: “Uste dut funtsezkoa dela presentzialki lan egitea, bai lankideekin sor dezakezun harremanerako, bai eta izan ditzakezun arazo edo zalantzak konpontzeko ere”. ●

Italiar sukaldaritza ez da existitzen



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Florentzia, 1886. Carlo Collodi *Le avventure de Pinocchio* eleberri ezagunaren egileak zera idatzi zuen pizzari buruz: “Labean txigortutako ogi orea, gainean eskura dagoen edozer gauzaz egindako saltsa duena”. Pizza hark “zikinkeria konplexu tankera” zuela gaineratu zuen idazle eta kazetariak, “pizza saltzailearen itxurarekin guztiz bat datorrena”.

XIX. mende amaieran, pelagra, B3 bitaminaren eskasiak eragindako gaixotasuna, endemikoa zen Italiako hainbat eskualdetan. Pobreziak jota zegoen herrialdea, eta dieta produktu gutxi batzuetan oinarritzen zen. Milaka eta milaka italiarrek Europako beste herrialde batzuetara eta, nagusiki, Hego nahiz Ipar Amerikara emigratu zuten.

Alberto Grandi gastronomian espezializatutako historialariak *La cucina italiana non esiste* (2024) bere azken liburuan dio italiarrek erbestean, nagusiki AEBetan, izan zutela gero mundu osora zabalduko ziren errezetak sortzeko aukera.

Collodik zioen bezala, pizza pobreziari eta “zikinkeriarri” lotutako jakia zen Italian. Baina atzerrian, osagaiez aberastu zuten. Grandiren esanetan, tomate saltszako oinarria AEBetan jarri zioten.

Pasta alla carbonara, aldiz, Italian bertan asmatu zutela dio historialariak, baina uste baino errezeta berriagoa dela, eta AEBen eragina ere baduela. Bigarren Mundu Gerra amaitu berritan, AEBetako armadak eramandako produktuak erabili zituzten saltsa berria prestatzeko:



Pasta jaleak, F. Milani (c. 1860)

hirugiharra eta arrautza gorringoa hautsetan. Ekonomiak horretarako aukera eman zuenean hasi ziren arrautza freskoak erabiltzen.

Eta ekonomiak eta industrializazioak ahalbidetu zuten italiar azkenburu tipikoenetakoa ere. Tiramisua prestatzeko “supermerkatuko produktuak eta hozkailu bat izatea ezinbestekoa” dela dio Grandik eta, beraz, postre ezaguna 1960ko hamarkadan sortu zela.

Garai hartan *Carosello* izeneko telebista saioak eragin handia izan zuen. Sukaldaritzari buruzko saioa 1957tik 1977ra bitartean emititu zen RAI. Grandik dio italiar *nonna* edo amonen jakinduria ez

zela belaunaldiz belaunaldi transmititu; telebistari esker ikasi zuten italiar plater “tradizionalak” prestatzen.

1970eko hamarkadan, industriaren krisiak eraginda, enpresa txikiak eta tokiko kalitatezko produktuen ekoizpena bultzatu zituzten, mendetako gastronomia tradizionalaren mito faltsua elikatu. “Benetako Parmako gazta, Italian duela 100 urte egiten zen azal beltzeko *parmigiano* txiki hura, soilik Wisconsinen ekoizten da”, Grandiren hitzetan.

Jakizue, beraz, carbonara esnegainaz prestatzen baduzue edo spaghettiak zatituta egosi nahi badituzue, ez zaretela ari mendetako tradizio sakratua hausten. ●



THE BRITISH LIBRARY BOARD

Erdi Aroko emakume kopistak

Orain arte uste izan dugu Erdi Aroan eta inprenta zabaldu baino lehen liburuak kopiatzeaz arduratu zirenak gizonezkoak zirela, zehazki, monasterioetako monjeak. Baina Bergengo (Norvegia) unibertsitateko ikerlari talde batek ondorioztatu du emakumeak ere kopista lanetan aritu zirela, liburuetako batzuek kopiatzailearen izena ere idatzita dute-

lako. 23.774 izkribu aztertu dituzte, eta horietatik 254 emakumeek idatziak direla ondorioztatu dute %1,1 beraz. Baina dokumentu askok ez dute kopistaren sinadurarik, beste askotan ezin da identifikatu idazlariaren generoa, eta ikerlariak uste dute oraindik identifikatu gabeko askoz gehiago daudela eta, hala, portzentajea handiago izango zela. ●

KOMUNITATEAZ (ETA III)



JOSEBE BLANCO

Komunitateari buruzko artikulu segida honekin hasi nintzenean, Antoine eta Antoine zeuden etxean, gazta-ganbara hutsik zegoen, hiltegirako bueltak asterokoak ziren eta hiru egunetik behin egiten genuen gazta. Hau idazten hasi naizenerako, Picardieko lagunak jaioterrira joan ziren eta Mallorcakoari egin zioten lekua, Zubillagako hiltegirara oso tartean behin joaten gara –astelehenean izango da azkenetariko bidaia– eta jada bi egunetik behin gasnatzen dugu.

Handik hona komunitatearen itsaso handian egin dut igeri; batzuetan itomen sentsazio bizi-bizia izan da, eskerrak ondorengo barealdiei... Gaurkoan bukaera eman nahiko nioke bildumari, baina ziur naiz, atzera ere, korronteak eramango nauela.

Hona heldu baino lehen, ez dakit zehazki noiz eta non, bururatu zitzaidan, agian, idatzi sorta hau izan dela lehenengoan idaztera ausartu ez nintzen hartara heltzeko itsasaldia. Gerturatze xume bat baino ez, komunitatearen muinean lurreratzeko.

Definizio holistikoko hartan basoaren funtzionamendua ikusten nuen nik: hainbat espeziek osatzen duten ekosisteman, bakoitzaren ekarpenak eragin zuzena du kideengan eta komunitatean bere osotasunean. Halaxe, nahikoa da liken mota jakin batean aldaketa bat gertatzea edo komunitateatik desagertzea, kateamendua martxan jartzeko eta ekosistema bestelakotzeko.

Urteak dira mugimendu sozialetan nabilela eta era guztietako ekosistemak ikusi eta bizi izan ditut. Bertan egokitu diren bizipenetan denetarik dago, garratza eta gozoa, eta biek ala biek eman diote komunitate horri etorkizunerako leihoa.

Zirt edo zart egiteko une jakin batean, lasaigarria bezain aberasgarria da pentsatzea, ikuspegi ezberdina izan arren, bestea ere komunitate horren hobe beharrez ari dela. Beste abiapuntu batetik, beste ñabardura batzuekin, baina betiere uste duen hori onena delakoan.



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Distantzia laburrean, izpiritu komunitarioa mantentzea, hainbatetan erraza izan ez arren, egingarria dela esango nuke, ezberdinarengan ere konfiantza izatean datza. Ez da kontu bera gertatzen, ordea, komunitatearen esparrua zabaltzen denean, inoiz aurrez aurre izan ez duzun horrekiko konfiantza izatea. Besteak beste, maiz komunitate sare horretan zuretzat ikusezinak diren hariak eta jostunak daudelako, eta diseinu osoaren berri ez duzulako.

Eta komunitatearen azken diseinu horren argazkirik gabe, zer zentzu du zure jostun lanak? Beharbada, puntadak, nahi gabe, toki okerrean ematen ari zara, eta konturatu orduko, komunitateak ez du burua nondik atera, hori ere ongi baino hobeto josi duzulako.

Tamalez, egoera ez da komunitate zabal horretan bakarrik ematen. Okerrena da arnastea bezain natural hartzen ditugula informazioaren kudeaketa lausoa eta dakartzan ondorioak; besteak beste, hori delako jasotako erreferentzia eta eredu ia bakarra.

Nire iritziz, mugimendu sozialetan, berariaz dagokigun funtzio horretaz gain –euskarra, eskubideak, feminismoa,

ekologismoa...–, atentzio handia jarri beharko genuke gure barne dinamikean. Izan ere, deskuiduan, jendartetik kritikatu eta ezabatu nahi ditugun eredu bertikal horiek, gu geu errepikatzen ari gara.

Gure obligazioa da izango den jendarte berdinazaleagoaren haziak ereitea. Eraldaketa sakonerako mintegiak behar ditugu komunitate txiki zein zabaletan, bizi gaituen eta bizi dugun krisi anitzari alternatibak sortzeko eta lantzen jarraitzeko. Harremanak beste ardatz batzuetatik eraikitzeak dakarren lan pertsonal guztiarekin.

Uste dut eguneroko praktiketarik sortu behar dugula basoa, plantazioko kriptomeriak edo eukaliptoak izan nahi ez badugu. Basoa izateak dakarren guztiarekin: inoren bizkar utzi gabe, nor bere lana egitea komunitatearen hobe beharrez, jakinda basoaren ongizatean datzala norberarena eta, ahaztu gabe, nekatuta gaudenean, komunitatean atsedean hartzeko modua izango dugula.

Udaberria bertan dela aprobetxatuta, arrasean moztuko ez gaituztelakoan, jarrai dezagun baso anitza eta bizigarria osatzen, elkarrekin. ●

A ZE FAUNA!

SUGE ARRANTZALEA, ERREKAN BARRENA



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Sugea entzun eta leku lehor bat etorriko zaio burura askori, narrostiek beroa behar dutela ondo barneratua baitu gizakiak. Suge guztiak ez dira berdinak, ordea; denek ez dituzte baldintza berak gustuko, eta horri esker dago, besteak beste, dagoen dibertsitatea. Bakoitzak bere bizi txokoa izan ohi du eta suge biperakarak ur eremuak ditu gustuko, zalantzarik gabe. Hargatik, herri askotan, “errekako sugea” edo “ur sugea” moduan ezagutzen dute animalia hau. Izan ere, suge biperakara ur zale amorratua da.

Igerilari aparta da eta urpekarri bikaina. Sugeak lurrean narrasean ibiltzen diren moduan mugitzen du gorputza ur azalean edo ur azpian ibiltzeko, eta nola gainera! Minutuak ere egin ditzake azalera atera gabe, eta horri esker, bere jakirik preziatuena, arrainak, arrantzatzeko abilezia bikaina du. Amuarrainak, ezkailuak... igelak eta zapoak ere jango ditu.

Esku-arrantzan ibili denak ondo asko ezagutzen duen animalia da. “Ur sugeak ez du kuidadorik, ez du horzkarik egiten.

Baina esku-arrantzan ginela, eskua sartu eta harrapatu nuen. Esan nien gehiago ez nintzela joango”. Errekako arrantzale gehienek, ordea, ez diote beldurrik, eta behin baino gehiagotan, amuarraina arrantzatzera doazela suge biperakara harrapatu badute ere, berriz ere bueltatu direla diote. Ondo asko baitakite suge biperakarak ez duela pozoirik, eta horzka ere, ez duela apenas egiten.

Sugeez gutxixeago dakienak, ordea, tentuz begiratzen dio suge biperakari. Nahasmena ere sor baitezake bere diseinuak. Izenak berak dioen moduan (biperakara), sugedorriaren antza du eta ezaugarri hori baliatzen du bere burua mehatxatua sentitzen duenean: lepo aldea puztu egiten du, hiruki formako burua jarritz, sugedorria bailitzan. Bien artean badira ezberdintasunak, ordea. Sugedorriak buruko eta gorputzeko ezkata guztiak tamaina berekoak ditu. Suge biperakarak, baina, burukoak gorputzekoak baino handiagoak. Begi-ninia ere, sugedorriak bertikala du eta biperakarak, borobila. Sugedorriak pozoia du; biperakarak, ez.

Izatez, sugedorria eta suge biperakara ez dira genero berekoak ere. Suge biperakarak gertuago dago suge gorbataduna bera, biak *Natrix* generokoak izanda. Biak ere eremu hezeen zaleak dira, nahiz eta diseinu aldetik antza handirik ez duten.

Kolore nabar edo gorritzak dituen suge honek populazio nahiko dentsoak ditu Euskal Herriko eremu batzuetan. Banaketa ere nahiko zabaldua du Euskal Herri osoan, eta hala, bainutokia erreka edo ibaia duten gehienentzat eza-guna da. Arrantzale amorratua denak nola arrantzatzen duen ere kontatuko dizu, Urumea bailaran kontatu ziguten moduan: “Amuarraina harrapatzen duenean, amuarrainarekin batera ibiltzen duk. Amuarraina gogorrean hasten denean, bueltan-bueltan igual ibiltzen duk; utzi egiten zio. Lasaitzen denean, berriz ostera lehorrera, eta beste horzka bat gehiago jan eta horrelaxe jaten du”. Behatzaile onak, gozatu ez ezik, ikasi ere egiten baitu naturan. Suge biperakarekin, gainera, gune pribilegiatuan: erreka soinuak belarria goxatzen duen lekuan. ●

SUGE BIPERAKARA

Natrix maura

TALDEA: Ornoduna / Narrastia.

NEURRIA: 90 cm.

NON BIZI DA? Ur eremutik gertu.

ZER JATEN DU? Arrainak eta anfibioak, batez ere.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.



EGOTZ ALKORTA MIRANDA

USTEZKO NEKAZARITZA ETA LUR LANTZEA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Nekazariarentzat baratzea eragozpena besterik ez da. Egungo makina bat nekazari "aurreratuk" horrela pentsatzen du. Bere lanean ez dute baratzerik behar, ezta oilategirik, ezta sagarrondorik, ezta erlauntzarik ere.

Horrela iritsi gara gaur egungo laborari panoramara. Ongarri kimikoak soilik erabiltzen dituztenak. Lur gutxi eta kanpoko jatenak soilik jaten dituzten ehunka behi pilatzen dituzten ukuilu erraldoietako unaiak. Lurrik ukitu gabe hazten eta puutzen dituzten tomateei ustezko kalitate goreneneko zigilua dutela ziurtatzen duen pegatinatxoa banan-banan itsasten dieten baratze-zainak. Esklabotasun baldintzetan lan egitera behartzen duen morrontzan bizi ezinik dauden atzerritar lagundu-behar gajo eta gizagajo saldoaren eskulanaren premia duten dirugoseak. Horra gure nekazariak. Batzuk. Nekazari industrialak. Jakinaren gainean edo ez, nekazaritzaren mafiaren parte direnak.

Bestelako ikuspegia topatuko dugu lur-langileen artean. Gozoagoa, noski. Lurrari behar duen errespetua diotenak. Haien alabek eta alaben alabek arnastuko duten airearen, edango duten uraren, jango duten barazki, fruitu, okela eta abarren benetako kalitatearen buxkan ahalleginean fin asko dihardutenak. Gu den denon, mafioso handienaren alabarena



barne, osasuna dakarren, nor izateko gaitasuna jorratzea ahalbideratzen duen eta herria ehuntzen duen lur-langintzan ari eta ari, ari direnak.

Elikagai industrialen mafiaren eta lur-langile zintzo finen artean makina bat laborari maila badago: aitzurlariak, nekazaleak, luginak, artzainak, kanpainarrak, abel-luginak, lur-lantzaileak, lur-lagunak, alor-lagunak, abeltzainak, alortiarak eta aipatutako nekazariak, lur-langileak, laborariak eta abar.

Denon lana da lurrari etorkizuna emango dion nekazaritza iraunkorra sustatzea, baina bertan ari denak badaki zertan ari den. Nekazariak badaki, eraldatzaileak badaki, saltzaileak badaki, teknikariak badaki, sindikatuak badaki, politikariak badaki. Badakigu denok: Euskal Herriko nekazaritza ia-ia buel-

tarik ez duen porrot zuloan dago; aspaldi erreka joarazi genion eta toto eginda dago. Hondamendian eraikitzaile jartzen gara edo segi berean.

Jorratzaile gaudenez, kritikari alegia, diogu: baina hondamenditik dirua sortzen duten horiek ere badakite. 1927an AEBetako Tennesseeko Unibertsitateak garbi asko azaldu zuen nekazaritzan porrota aurkitzeko bidea. Hona dekalogoia: uzta bakar bat landu; aziendarik ez izan; oilategia eta baratzea enbarazu besterik ez dira; lurretik hartu eta hartu ezer eman gabe; lurra es-tali gabe gorri eduki eta urak lur

gozoena higitzen utzi; plangintzak egitea astuna da, utikan! zoriarekin fida zaitetz; basoa landu ikatz meategi bat balitz bezala, moztu zuhaitz guztiak, saldu egurra eta erabili garbitutako lurra artaberdea hazteko; aski onak direla-eta, eutsi zure amona-aitonek erabiltzen zituzten nekazaritza bideei; izan zure eskuko, loka-be, ez elkartu zure ingurukoekin inongo lankidetzatara; hipotekatu zure ustiapen osoa, balio dituen euro guztiak, nekazaritza zuzena landuko bazenu, zenituzkeen gauzak eskuratzeko dirua izan dezazun.

Ehun urte dira, bai, egungo egoera aurrikusten zutela batzuek. Gaur ere askok ez dute ikusi nahi. Eta batzuk ezkutu gordetzen saiatzen dira, hori baita beraiantzat nekazaritzak ematen duen mozkina. ●



Bizi Baratzea
Lurrari begiratzen diogunon **Orria**

eginbizibaratzea.eus

Kide egiteko arrazoiak

"Interesgarria iruditzen zaidalako naturarekiko harreman modu hori indartzea"

J. Inazio, Durangotik

SOILIK

LURSAIL TXIKIAN ETA INBERTSIO ERRALDOIRIK GABE GARATU DAITEZKEEN PROIEKTU AGROEKOLOGIKOAK



GARAZI ZABALETA

Gasteizko Basaldea etxaldean dago kokatuta Soilik nekazaritza birsortzaileko proiektua, Abetxuko auzoan, eta Jaime Garcia, Joseba Vigalondo eta Javier Chaves dira bultzatzaileak. “Lehen sektorean, eredu agroekologikoan inkorporazio berriak bultzatzea da gure helburua, baina bereziki baserri munduan jatorria ez duten eta hutsetik hasi nahi duten pertsonen artean”, dio Garciak. Lursail txiki batean, inbertsio handirik gabe eta lantaldeetan funtzionatuta proiektu bat martxan jartzeko aukera badagoela erakutsi nahi dute, eta nekazaritza birsortzailea formula ezin hobe delako horretarako. Hektarea erdira iristen ez den lursailean ekoitzen dutenarekin 200 etxe baino gehiago elikatzen dituzte Gasteizen. “Eskalaren kontua erlatiboa da, kudeaketa eta maneia dira askotan garrantzitsuena”, dio.

EREDU BIOINTENTSIBOA

Nekazaritza birsortzailearen barruan, eredu biointentsiboan ari dira arabarrak. “Lurreko bizitza intentsifikatzea bilatzen duen agroekologiako eredu da, espazio txiki baten errendimendua hobetzeko helburuz egiten dena”, azaldu du. Materia organikoa gehitzea eta laboreen dentsifikazioa oinarritzako dira eredu horretan. “Landareen arteko tartearak askoz txikiagoak izaten dira, eta toki bakoitzetik labore gehiago pa-



satzen dira. Urtean, metro koadro bakoitzetik 3,5 labore batez beste, gure kasuan”, gehitu du.

Soiliken ez darabilte traktorarik, ezta rotaborrik ere, eta mekanizazio maila nahiko txikia dute. “80 zentimetroko zabalera 155 bankal ditugu lursailean, erreminta guztiak zabalera horretarako ditugu estandarizatuak, eta horrela, bankal batean lanean ari garenean ez dugu ondokoan eragiten”, diote. Partzela txikia baina oso dibertsifikatua da, iaz 155 bariatate egin zituzten guztira. “Dibertsifikazio hori guztia kudeatzeko eta

planifikazioa egiteko programa bat darabilgu, ezinezkoa litza-teke bestela”, dio Garciak. Urte guztiko planifikazioa egiten dute, eta horren arabera kalkulatzen dute zenbat hazi behar-ko duten, aste bakoitzeko lanen egutegia zein izanen den...

FORMAZIOA, AHOLKULARITZA ETA ERREMINTEN FABRIKAZIOA

Proiektuko hiru kideek ez dute nekazaritzarekin lotutako ikasketa formalik, baina nekazaritza birsortzaileko hainbat proiektutan egin dituzten egonaldietan ikasi dute: “Kanadatik, Suediatik eta nekazaritzarako garai mugatuak dituzten beste zenbait tokitatik asko edan dugu, han negutegiko azalera guztiari zuku handia ateratzen baitiote”. Richard Perkins, Jean-Martin Fortier eta Eliot Coleman aipatu ditu erreferentzia gisa.

Soilik proiektuaren jarduera ekonomiko nagusia barazki ekoizpena den arren, ez da bakarra; formazioa, aholkularitza eta erreminten fabrikazioa ere egiten dituzte. “Udalarekin elkarlanean azalpen gunea jarri dugu martxan, formazioak eta bisitak eskaintzeko jendeari, nekazaritza-eskolei eta bestela”, dio. “Azken batean, duela urte batzuk guri lagungarri izango zitzaigun espazio hori garatu nahi izan dugu Soiliken, beste pertsona batzuei aukera emateko”, amaitu du. ●

EUGENE POTTIER

‘KANTA IRAULTZAILEAK’

Inoiz galduko ez den kantuaren gauza
 PAUL BEITIA ARIZNABARRETA

Ereserkiek, kanta-modalitate zehatz, eder eta arriskutsu horiek, komunitate bati zuzentzea izan ohi dute helburu. “Ene aberri eta sasoiko lagunok”, hasten da Sarrionandiaren poema ezaguna. Ereserki bat da, jakina: horra nori zuzentzen zaion tonu solemnean, handitxo gelditzen zaigun alkandora bezala sentiaraz gaitzakeena. Entzuna diot Ion Celestinori ereserkietan ohikoa dela nostalgia, komunitate batek galdu duenari kantatzeak ematen diela kanta horiei sarritan behar duten indarra. Ereserkiei buruzko ereserkia izan daiteke: “Zuekin batera aurkitu nahi nuke gure hitzen zentzu galdua”.

Hitzek nola galtzen dute, ba, zentzua? Zer egin orduan: berreskuratu ala berritu? Zer da zinez zerbait galtea?

Galdu, galdu zaitezke esaterako Parisko hilerri handi batean. Lurpean baldin bazaude, kostako zaizu galtzen, baina demagun abuztuko arratsalde euritsu batean Parisko Père-Lachaise hilerriara aurrenekoz sartzen den gaztea zarela, zertara eta hilobi baten bila. Hilotz ustelduen hirian bezala, kalean gora eta behera hasten zara, baina alferrik. Erraz topatzen dituzu Oscar Wilderena, Edith Piafena, PCF-ko militanteenak, baina nahi zenue-naren bila, ohartzeko, galdu zara. Lorazain xaharrari ahoskatzen diozu, ahal bezala, izena. Muturra okertzen

du, “Eugene, zer?”, ezaguna egiten zaiola, baina ez dakiela. Ohitu zara aurretik, bigarren eskuko lauzpabost liburudendatan ere gauza bera gertatu zaizu-eta: “Pottier”, ahalegintzen zara erantzuten dendarien galderari, eta haiek ezetz egitean zalantza egiten duzu ez ote duten zure ahoskera traketza ulertu ala benetan posible den halako idazle baten libururik inon ere ez egotea. Bosgarren ezezkorako seguru zaude erabat: idazle galdu baten bila ari zara.

Eta Sarrionandia berriz: “Nork daki okerreko eskaileratik igo ez garen honaino?” Eta Brecht, gero: “Zergatik / behar du nire izenak aipatua izan?”.

Lorazain xaharrak harantz seinalatzten dizu eta zuk hara jo. Maldan gora egin eta berriro behera itzulita topatzen duzu, azkenean, hilobia: haritzadar batzuk dauzka zizelkatuak eta berdez margotuak eta harrizko liburu gorri bat, irekita. Irekitako liburu horixe da Eugène Pottierrek 1887an argitaratutako *Kanta iraultzaileak*. Horixe duzu Paris osoan topatu duzun ale bakarra.

Parisen jaio eta hil zen Pottier, eta bere bizialdian aritu izan zen enbaltze-lanetan, jornalari, pastelgile eta bulegari. Ikasketaz, baina, ehundi-seinatzailer industrialaren eta garai batean harro esaten omen zuen Parisko estudiorik onena berea zuela. Militante sozialista izan zen, lantegian

bertan antolatu zen, langileak izan zituenetan sekzio sindikala sortzera bultzatu zituen, 1848an monarkiaren kontrako erreboltan parte hartu zuen artisauekin eta langileekin. 1867an Lehenengo Internazionalerako kide egin zen eta 1871n Komuna ezarri berriko Kontseilurako ordezkari hautatu zuten. Barrikadetan armak hartuta borrokatu zen eta erbestera alde egin behar izan zuen fusilamendutik ihesi. Idatzi zuen: “*Kalean tiro eta balak, / Herria horrantza dabil; / Jaso, jaso barrikadak! / Zer nahi duzu? Aspermen oro hil!*”. 1887an, Parisa itzulita hil zenean, hamar mila lagun bildu omen ziren haren hilkutxaren atzean.

Langile eta poeta izan zen, langile-poeta, Rancièrek gerora hala izendatuko zituen horietakoa, zeintzuek egunean zeharreko lanak utzitako tarteetan edo, gehientsuenetan, gauez idazten baitzuten. Pottier gaztetatik juntatu zen *chansoniers* edo kantagileekin, langile-klubetan eta abesbatzetan aritu ohi ziren poeta horiekin. Kanta berriak idazten zituzten langileen egunerokotasunaz eta borrokaz, haien suspergarri eta entretenigarri, askotan jendeak ezagun zituen doinuen neurrian, eta hala posible zen, irakurtzen eta idazten jakin gabe ere, segituan kantuan hastea, entzulea bera ere segituan kantari bihurtzea.

Egunean zehar zapatak eta pastelak, etxeak eta ferrokarrilak egiten zi-

tuzten, eta, laneko tarteetan, kantak. Edo, are: zapatak eta pastelak eta ferrokarrilak bezala egiten zituzten kantak. Ez ziren langile, alde batetik, eta kantagile, bestetik: kantaren eskulangileak ziren. “*Goratu bainuen erabilgarri dena / Nire garaian baldartzat jo zen hura*”, dio Brechtek. “*Musika egitea ez da gauza itzela*”, Sarrionandiak, “*Obra inperfektoa gehienik, / Eman dezagun limonada prestatzea bezain / Ekintza humano eta duina dela*”.

Kantaren forman topatu izan dute langileek beren neurriko forma poetikoetako bat. Erraza da: neurriak eta errimak kadentzia berezia emateaz gain buruz ikastea errazten dute, irudi poetiko simple eta kotidianok maiz poesia handiustean aurki ezin daitekeen esanindarra daukate, bertso-lerro batean emandako aldarrirri politikoa ezagunek neurrirra eginak dirudite, Poliziaren aurrean korrika egiteko balio duten zapata erosoek bezala ia. Poesia baldarra deitu izan zaio kantari, baina langileari horrek bost: balio dio lanean ari delarik ahopean erabiltzeko, deskantsua kideekin ospatzeko, azken gertakari berri izateko, borroka egun batean ozen abesteko. Kantaren teknika poetikoa izan da langileon kontrolpeko ekoizpen-bitartekoetako bat.

Horren adibide dira Pottierren *Kanta iraultzaileak* eta haren gainontzeko obra, orain baztertua eta ahaztua, behinola panfletoetan eta karteletan argitaratua izan zena, eta langileen ahoetan hedatua: “*Zailetan zail izan dadin / Zu burgesari saltzea. / Aitzin, langile-klasea! / Langile-klasea, aitzin!*”. Bertso garbiz eta indartsuz beteta dago liburua, eguneroko hizkuntzatik abiatu bai, baina bihurrituta berritzea lortzen dutenak, “*Porrota errebantxaren zain dago*” bezalako irudi poetikoak sortzeko. Langile-jendearen egoeraz hitz egin bai, baina haren grinak harago bultzatzen dituztenak: “*Aineza goza Afrikaz! / Arabiar, lehoi... aske! / Nahiz ez jakin politikaz, / Barnea dut ekintza eske!*”.

Pottierrez gain, ez da gehiegi pentsatu behar jardun beraren adibide gehiago topatzeko. Aipatzen ari garen Brechtek berak goratu eta erabili zuen kanta forma gisa, tradizio popularretatik hartu eta garai berrietara moldatua. Hor daude Pete Seeger eta Almanakeko Kantariak, Parratarrak eta Victor Jara, kantaren eskulangileak guztiak.

Gurean ere, luze-oparua da antzeko kanten tradizioa, herri anonimoak sortutakoetatik hasi, zenbait bertso-paperetatik pasa eta Aita Onaindiak “oleskari” deitu zien bertsolarietaraino, “herriaren gogoan kax-kax joz” kantatzen zutenak. Hor daude Koldo Izagirrek urtetan sortutako kantak, haien errepika eta joko, asko Joseba Tapiaren soinuak ezagutaraziak eta *Teilatuko lizarra* liburu ederrean jasoak. Hor daude Arestik egin zituen kantak eta ereserkiak, asko jada bere izenik ere ez daramatenak. Hark ere bere *Harri eta herri* ez zuen poema-liburu soiltzat hartu, abisatu zigun “kopla, bertso, ditxo eta poemak” zirela bereak.

Langile-jendearen eguneroko tresna izan da kanta, haren baliagarritasuna eta edertasuna bat izan dira. Agian guztietan handiena dena ere, *Internazionala*, Pottierrek idatzi zuen Komunaren ostean eta *Kanta iraultzaileak* liburuan dago jasoak. Lehenengo ereserki unibertsala, kanta bat gogorarazten diguna, edonon gaudela ere, edozein dela ere gure hizkuntza, gure klaseko jendea daukagula alboan borrokan.

Hori guztia izan da kanta eta, hala ere, sentitzen dugu Sarrionandiak arrazoi duela kantaren “gauza galdua” aipatzen duenean. *Internazionala* bera ere triste da oso egun sindikatu burokratikoaren ma-

nifestazio-ondorenetako aho gogaituetatik edo Ferrazeko kriminalen bozgorailuetatik entzunez gero. Zer da, ba, kantari galdu zaiona? Kantek al dute bada errua ala “*agian geurea da, eta urrutirago joan gabe / geure buruaren aurka ekin beharko diogu?*”. Kantaren erabilgarritasuna, auzi artistikoa bainoago, ez al da auzi politikoa?



Kantak ez dira galdu, hor daude oraindik, itxuraldatuta: une oro sonatzen dute autobusean doan gaztearen aurikularretan, lanera doanaren autoan, dantzalekuetan, gaztetxeetan. Hor dago oraindik kantaren teknika poetikoa, Pottierren garaian bezain indartsu eta erabilgarri, “errebantxaren zain”, gaur egungo langile antolatuek beren borrokarako erabiliko dituzten forma berriak noiz aurkituko. ●





Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA IBON LARRAZABALEN "DONA DONA" LIBURUAREN PASARTE BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

6	5	1		7		9	3	
	7		5				4	
		3	2	1		5		
		9	6	4	8	7		3
7		8	9		3		1	4
5	3	4	1	2		6	9	
8	2	5				4	6	
3	4		7		5			
	9		4	6	2		8	

ERRAZA


3			1					9
		1						
			8	7		4		
	7	2			8	6		3
			2			5	7	
			9		2		8	
8							3	
		3	9	5	2	1		
1	6							2

ZALA

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Landare igokaria.
2. Beharbada.
3. Zerrenda.
4. Katu ar.
5. Elaia.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				S	E	I	L	U
2	M				O	B	I	O
3	Z	E				U	S	I
4	H	O	Z				R	I
5	Ñ	I	R	Ñ				A
6	B	A	K	A	R			

EBAZPENAK

1	9	7	4	6	2	3	8	5	
3	4	6	7	8	5	1	4	6	7
8	2	9	6	4	1	7	3	5	
5	3	4	1	2	7	6	9	8	
7	6	8	9	5	3	2	1	4	
2	1	9	6	4	8	7	5	3	
4	8	3	2	1	9	5	7	6	
9	7	2	5	3	6	8	4	1	
6	5	1	8	7	4	9	3	2	

ERRAZA

1	5	6	3	8	8	7	9	4	2
7	4	3	9	5	2	1	8	6	
8	2	9	6	4	1	7	3	5	
6	3	4	7	9	5	2	1	8	
9	1	8	2	3	6	5	7	4	
5	7	2	4	1	8	6	9	3	
2	9	5	8	7	3	4	6	1	
4	8	1	5	6	9	3	2	7	
3	6	7	1	2	4	8	5	9	

ZALA

PUZLEA: "BIZILAGUNEK EZ NINDUTEN LOTSATUTA, EZKUTATUTA, KEZKATUTA EDO NEGARREZ IKUSTEN, BETI LASAI ETA SEGRU BAIZIK, ETA HORREK ZERBAIT ESAN NAHI BEHAR ZUEN".

5x5: 1. ZALKE, 2. AGIAN, 3. LISTA, 4. KATAR, 5. ENARA

HIZKI BERAK: 1. KRISEILU, 2. MIKROBIO, 3. ZERIKUSI, 4. HOZKIRRI, 5. NIRNIRKA, 6. BAKARRIK

Lurra zapaltzeko moduak

 AINHOA MARIEZKURENA ETXABE

Ez, ez da Zartzuclaren estreinaldia izan, ezta Hitchcocken filma batena ere. Ez da Donostiako Zinemaldiaren Sail Ofizialean ikusi eta, agian, ez da Victoria Eugeniaren besaulki-patio ofizialean aurkezteko modukoa. Hobe da.

Donostiako Victoria Eugenia Antzoki handiko besaulki-patiopean bada areto txiki bat. Satorren bizilekua izatetik ez hain urrun, izkinako sorkuntzak, istorioak eta ahotsak kontaktzen dira normalean. Oihartzun txikikoak izaten dira, baina xarma handikoak ere bai. Telmo Iruretak bere bizitza kontatu nahi izan digu, bere garun paralisiak nola eragin duen munduaren ikuskeran, baita munduak nola ez dituen garatu hura begiratzeko moduak ere.

Giza Eskubideen Zinemaldian aurkeztu du lana autoreak. Zinema eta antzerkia uztartzen ditu. Lehen ordu laurdenean ikusleak *Urez eta Hondarrez* deituriko film laburra ikusiko du, zeinetan Telmoren amak hartuko duen protagonismo handiena. Gerora kontatu digunez, amaren begiradatik nahi izan du bere istorioa kontatu,

egoera horrek sortzen dion kezketako bat badelako besteengan sortzen duen inpaktua. Amaren gutun bat izango du abiapuntu, beraz, film laburrak, semeari idatzitako gutun bat. Hondartzako egun baten kontakizunarekin hasten du idazketa. Telmok bi urte zituen eta hura nola gogoratzen duen kontaktzen dio. Momentu hori izan zen prozesu guzti honen hasiera eta iltzatuta dituen beste hainbat eta hainbat idazten dizkio. Hitzak esplika ezin ditzakeenak ere sentitu ditugu, dantzak, irudiak eta gorputzak indar handia baitute filmean.

Pasarte honetako pertsonaia erreal bakarria Irureta bera dela esango nuke, familia eta ingurukoak ordezkatzeko dituztenak aktoreak baitira. Antzerkiaren forma hartzen duen film laburra amaitu ondorengo solasaldiak ere badu horretatik: elkarrizketazaileraren papera Dorleta Urretabizkaia egiten badu ere, Telmoren txikitako zaintzailea ordezkatzeko baitu. Haien arteko harreman estuak are intimoagoa eta gertukoagoa bilakatzen du una eta espazioaren erabilerarekin belarrira kontaktzen ari zaizula dirudi.

Era berean, ironia, umorea, sarkasmoa eta askotariko metaforak erabiltzen ditu ikuslearengana iristeko eta bizitzaren aurrean hartu duen jarraera erakusteko. Hori da Irureta, beti erakutsi duenez, baina lan honetan bere alderik sentiberena ere eskaintzen digu. Emozio guztiek garrantzia bera dute: errazak eta ez hain errazak. Zailak eta ez hain zailak. Onak eta txarrak, bai, txarrak ere badirelako. Baina txarrak eta onak, onak ere badituelako. Tarteka Telmo txikiari hitz egingo dio, eta besteetan Telmo hipotetiko bati. Etsipenez, aukerez, ingurukoez, jendeaz, maitasunaz, gaztaroaz...

Emanaldiak ez du fikziotik ezer, protagonistak egiak baino ez dituelako mahaigaineratzen. Eta ikuslegoa deseroso sentiaraziko duen hamaika esaldi ere bai. Hark esaten dituen beste esanahi bat hartzen dutenak eta hartzailea bizitzan hartzen dugun posizioaz hausnartzera daramana ezinbestean. Oso erabaki azkarra da hori. Zama kentzeko asmorik gabe lurra zapaltzeko moduak eta moduak daudela erakutsi digu. ●



INTERVIEW. UREZ ETA HONDARREZ

EGILEAK: Telmo Irureta eta Mireia Gabilondo.

AKTOREAK: Telmo Irureta eta Dorleta Urretabizkaia.

ZUZENDARIA: Mireia Gabilondo.

KONPAINIA: Tentazioa.

NOIZ: apirilaren 2an.

NON: Victoria Eugenia Klub Aretoan, Donostian.



LIBURUA

Lore bat izan zen



ASFALTOAREN AZPIAN, LOREA

TESTUA: MÓNICA RODRÍGUEZ

ILUSTRAZIOAK: ROCÍO ARAYA

ITZULPENA: ITZIAR ULTZURRUN

A FIN DE CUENTOS, 2025

XABIER ETXANIZ ERLE

Liburu honetara hurbiltzen dena harrituta gera daiteke, liburu ilustratua izanik, zenbat testu duen ikusita. Ohituta gaude liburu ilustratuak eta albumak oso testu gutxi obrak izatera, eta lehen irakurleei (edo irakurri aurreko etapari) zuzenduta egotera.

Oraingo honetan, aldiz, Mónica Rodríguez-en istorio bat dugu oinarri, gure hiriko asfaltoaren azpian zer egon zen kontatzen digun istorioa. “Asfaltoaren azpian, lore bat izan zen behin batean. Eta lorearen ondoan, ibar bat.” Horrela ekiten dio idazleak kontakizunari, eta ondoren: “Han, burdinazko farola dagoen tokian, bazen zuhaitz handi bat, baso bat adinakoa, eta baso bat ere bazen”. Horrela, orainetik iraganera

eramaten gaitu, gurdian ibiltzen zen saltzaile ibiltariaren familia ezagutzera eta Leon mutikoak bizi dituenak, lorean islatzen ikustera.

Iragana, beste garai bat, mundua ikusteko beste modu bat, ageri dira Rodríguez eta Arayaren artean sortu duten lanean. Testuak asko esaten badu ere, irudiek badute zer kontu. Rocío Araya bilbotarrak oraineko paisaia grisetik iraganeko basora, koloreetako mundu bizi eta aldakorrera eramaten gaitu, Leon eta lorearen mundu lasai eta bizira, amaieran berriro asfaltera itzularazteko. Estilo itxuraz sinplean, akuarela trazuen bidez (Asun Balzola gogora ekarri diguna) ilustratzaileak lortzen du egoerak irudikatzea, ikuslea-

ri testuak transmitituriko gozotasuna areagotzea.

Liburu eder honetan Leon mutikoa eta lorea ditugu protagonista, beraien arteko harremana, behinolako mundu bat azaltzen digun kontakizuna, eta amaieran, testuak dio asfaltoaren azpian lore bat eta lore horren inguruko mundua izan zela (“Eta lorearen ondoan, ibar bat –egon zen-. Eta ibarrean, baso bat, ibai bat. Eta loreari sekretuak kontatzen zizkion ume bat ere bai. Hementxe bertan, asfaltoaren azpian”). Irudiak, aldiz, hurrengo bi orrietan bestelako mezu irekia adierazten digu, irakurleak interpreta dezan, asfaltozko mundu honetan itxaropenari leiho bat irekita. ●



MUSIKA

Kerobia, hunkigarristak eta xamurtasunaren aitzakia



KEROBIA

XALBA RAMIREZ

Azken aldian, lerrootan asko nabiltzen hausnartzen musikak izan beharko lukeen “misio historikoak” eta abarrez. Eta, nolabait, zer egin beharko lukeen arteak norbere zilborretatik begiak altxa eta garaiari kantu egiteko. Baina, noski, horrek zer esan nahi du? Kantu guztietan esplizitatu behar dela poliziarekiko gorrotoa, edo lelo anarkosindikalista, komunista eta feministak nahastu behar direla eraserkiak egiteko? A ze asperdura ekarriko lukeen horrek!

Kerobiak, itxura ez badu ere, badu intimitatea beste era batean garatzeko proposamen estetikoak. Gauza txikien apologia hori ez da erreklamo publizitarioa. “Espektakulutik” ihes egin nahi izan dute “oso leuna” den lan bat eskainita, argirik gabe, suziririk gabe, instrumentu txiki askorekin.

Gonbidapen autokritikoak eskaintzen ditu: “Zer du egiaz, transzendentziaz nire iritziak? Zer du egiaz, fartsaz nire istorioak?”. Eta galdera horiek serio hartuz gero, erortzen dira hunkigarristen autolaguntza mezu azukretu eta despolitizatuak.

Hunkigarrista deitu izan zaio emozio positiboen erabilera komertziala egin izan duten euskal taldeei (helburu politikoekin erabili izan dituztenei ere bai). Mr Wonderfull zenaren bertsio euskaldunak dira, gatazkak ukatu eta marketing estrategia zorrotzak eramaten dituztenak aurrera, monolaborantza prograbatuz, kontzientziadun kapitalismoa. Haien bizitza Estrella Damn garagardo markaren anuntzio gisa irudikatzen dutenak dira. A, eta euskararen “balio erantsiaz” hitz egiten dutenak, argi utzita, proiektu artistikoaz gain,



POLIORKÊTÊS

KEROBIA

AUTOEKOIZTUA, 2025

badagoela enpresa plan bat.

Baina ezin dugu ur zikinarekin batera haur jaio berria leihotik bota. Uste dut badirela “gora bizitza” aldarrikatu eta “zeinen ederra izango den”-aren arteko aldeak. Gauza da nondik eta nora esaten diren. Eta hor garrantzitsua da artistaren eta komunitatearen arteko harremana. Zaleak ez dira kontsumitzaileak. Xabi Bandinik honela hausnartu zuen egun gailentzen ari diren joeren aurrean: “Zalea zaindu behar da: *tabarra* sartu gabe, *neurosirik* sortu gabe”. Marketinean, *sold out*-ean, eta sare sozialen bonbardeoetan su-etenik ez?

Ez nago oso ziur, aurreko lanekin alderatuta, *Poliorkêtês* diskoa zenbat gustatu zaidan. Baina Kerobia bai gustatzen zaidala. Eta asko. “Nahiago dut hari txiki hori eutsi, xamurtasunaren aitzakiarekin”. ●

Hil egin zaituzte, Walid

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Azal eta hezur geratu zara, Walid. Norbaitek ikusiko bazintu, segundo erdiz gogora etorriko litzaioke hortxe, zauden lekutik ez oso urrun, aspaldiko garaietan lurperatutako faraoien gorpuek izaten zutela orain zureak daukan itxura. Haiek ere erauzi zituzten beraiena zen lurretik, eternitate osorako gorde behar zituen hilobitiki; eta orain museo europarretan daude ikusgai, bisitan doazen ondo elikatutako haurrentzat nazkagarri. Baina lasai, Walid, zurekin ez dute horrelakorik egingo. Ez zaituzte enbalsamatuko; ez dituzte zure hezur eta azalak eguzkitan lehortuko; erretxinezko eta olioizko masaje gozorik gabe geratuko zara; erleen argizariari eta lihozko bendek ematen duten luzerako babesa ere ukatuko dizute, ura, ogia eta beste guztia bezala. Eta ez, ez zaituzte –horretaz seguru egon zaitezke–, gure herrialdeetako Historia museoetan

erakutsiko, nahiz eta zure organismo torturatuak gehiago duen esateko une honetan gure agintariak (ekintzaz) eta gutako gehienok (ekintza faltaz) idazten ari garen historiaren puskaz, edozein testu-liburuk eta ikerketa burutsuk esango dutena baino.

Gustu txarrekoa litzateke, ordea: pertsonak hil ditzakete; pertsonak hiltzen dituztenak armatu ditzakezue eta hiltzen ari diren bitartean beste alde batera begiratu; pertsonak hil aurretik haiek torturatzen, espetxeratzen, goseak akabatzen, heriotzaraino gaixotzen uzten diegu. Baina gorpuek jendaurrean erakutsi? Hori ez, mesedez: nekro-pornografiak –ikusten duzu, edozertarako ditugu kontzeptuak– ez omen du ezer onik ekarriko Palestinako auziaren inguruko eztabaidara.

Gainera, zertan ari naiz hemen, Walid, zure gorpuari hizketan, zure senideek ere oraindik ikusi ez badute.

Zertan, lurrean sartzea ere ukatzen badizute. Zertan, oraindik zure azal eta hezur hebainduak lekuko bakarrak forentseak badira –zure hiltzaileez gain, noski–. Zertan, zertan ari naiz, izugarrikeriari neurria hartzeko haien txosteneko hizkera profilaktikoaren lerro artean sumatzen dena imajinatu besterik ezin badut egin –imajinatu, adibidez, zer tratu eman dizuten sei hilabetez, zure gorputz gaztetik gantzak eta giharrak erabat desagertu direnerako; imajinatu nola erabili zaituzten, gazte segail osasuntsu, azken hatsa eman ondoren sarnak janda aurkitu zaituztenerako; imajinatu lepoan ageri zaizun ebaki horren kausa: kartzelazain sionistaren bategen labankatu ote zintuen dibertitzeko, beste batzuekin egin izan duten bezala–.

Hil egin zaituzte, Walid Ahmad. Prentsak dio futboleko jokatzera eta kickboxinga gustatzen zitzaizkizula. Prentsak dio apiril honetan beteko zenituela hemezortzi. Prentsak dio Silwaden (Zisjordanian) zure gurasoek gordeta dituztela kirolean irabazi zenituen trofeoak eta dominak. Prentsak dakartzan zure argazkietan, kalean ikusten ditudan zure adineko gazteen tankera hartzen dizut. Prentsak dio 2023ko urriaren 7tik Israelgo kartzeletan hil duten lehenbiziko adingabe palestinarra zarela. Prentsak, tartean behin, izen-abizenak jartzen baitizkiegu genozidio honetan hiltzen zaituzteten milaka lagunetako zenbaiti. Eta sentitzen dut informazio osoa ezin eskuratua, zuen hiltzaileen izenak ere argitaratu beharko baikenituzke, beraien seme-alabek, bilobek, birbilobek, mendeen mendeetan zainetan daramaten odolarengatik lotsarik beltzena senti dezaten. ●



LIBURUAREN EGUNA

APIRILAK 23

**10 EKO
BEHERAPENA**

Apirilaren 27ra arte
ESKAINZA BEREZIA
ARGIAren liburu guztietan

azoka.argia.eus



IPUSCUA

1000 urte

Ipuscuatik Gipuzkoara 1025-2025

SAN TELMO MUSEOA

Erakusketa · 2025/01/18 – 2025/05/11



www.santelmomuseoa.eus • @santelmomuseoa • Zuloaga Plaza, 1. 2003 Donostia / San Sebastián

STM
San Telmo Museoa

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

 donostia
kultura

 **GIPUZKOA**
Kultura

IPUSKOA ipuscuatik
1025/2025